

A. Dokumentua: INFORMAZIOZKO AZTERKETA
ETA PLANOAK. MEMORIA

I. ABIAPUNTUKO OINARRIAK.
INFORMAZIOZKO AZTERKETA ETA PLANOAK

AURKIBIDEA

1.-	LURRALDE PLAN PARTZIALA BIDERATZEKO PROZESU OROKORRA.....	1
2.-	INFORMAZIO LABURPENA	6
2.1.-	LURRALDE ESPARRUA.....	6
2.2.-	EREMU FUNTZIONALAREN HIRI GARAPENA	8
2.3.-	DEMOGRAFIA	10
2.4.-	ESPARRU SOZIEKONOMIKOA	13
2.4.1.-	2008-2014ko GELDIALDI ETA DOITZE ALDIA.....	13
2.4.2.-	EREMU FUNTZIONALEKO BEREIZGARRI SOZIO EKONOMIKOAK.....	22
2.5.-	UDAL PLANGINTZA OROKORRA	28
2.6.-	GARRAIO ETA KOMUNIKABIDE SAREA.....	49
2.7.-	AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA OSOAN BERRANTOLATZEKO PROZESUAK.....	57
2.8.-	LURRALDE PLAN PARTZIALA ETA ORDENAMENDU JURIDIKOAN.....	60
2.10.-	EREMU FUNTZIONALAREN EGOERA UHOLDEEN AURREAN	65
2.11.-	OINARRIZKO BESTE AZPIEGITURA BATZUK	67
3.	GAURKOTUTAKO DIAGNOSTIKOA	70
3.1.-	2003-2010 ALDIA BALORATZEKO ANALISIA.....	70
3.2.-	2010ean HASIERAN ONARTUTAKO LURRALDE PLAN PARTZIALAREN DOKUMENTUA JENDAUURREAN EZAGUTZERA EMATEKO PROZESUA ETA IRADOKIZUNEN IDAZKIEN EDUKI NAGUSIEN EBALUAZIO GLOBALA.....	73
3.3.-	2011-2016 ALDIA. LURRALDE PLAN PARTZIALA IZAPIDETZEKO PROZESUAK AURRERA JARRAITZEKO BALORAZIO ANALISIA, DIAGNOSTIKO EGUNERATUA ETA IRIZPIDE ESPEZIFIKO BERRIAK.....	74
3.4.-	LURRALDE- ETA HIRI-ERREFERENTZI OROKORRAK	80
3.5.-	LURRALDE PLAN PARTZIALA IDAZTEKO ANTOLAMENDU IRIZPIDE OROKORRAK	85
3.6.-	LURRALDE PLAN PARTZIALAREN HELBURU OROKORRAK.....	89

1.- LURRALDE PLAN PARTZIALA BIDERATZEKO PROZESU OROKORRA

4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak (LAL), Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeke tresna hauek ezarri zituen: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Lurralde Plan Partzialak (LPP) eta Lurralde Plan Sektorialak (LPS).

Adierazitako 4/1990 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartu ziren. Horiek lurralde- eta hiri-antolamenduko gainerako tresnak formulatu eta idazteko erreferentziazko esparrua dira.

Lurralde Antolakuntza Gidalerroetan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea planifikatzeko orientazio eta erreferentzia gisa balioko zuten irizpide, jarraibide eta estrategien multzoa ezarri zen. Gainera, 4/1990 Legearen 6.5. artikuluan adierazitakoaren arabera, hamabost eremu funtzional (EF) mugatu ziren. Hain zuzen, horiek dira dagozkion lurralde-plan partzialak idazteko oinarri hartzen diren lurralde-esparruak. Eremu horietako bat, Euskal Autonomia Erkidegoko ipar-ekialdearen muturrean dagoena, Donostiako Eremu Funtzionala izendatu zen. Horrek honako udalerri hauek biltzen dituen: Andoain, Astigarraga, Donostia, Errearteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

Dena den, Donostiako Eremu Funtzionalako ("Donostialdea-Bidasoa Beherea" ere deitzen zaio) Lurralde Plan Partziala 1992-1995 aldian idazten hasi ziren, Lurralde Antolakuntza Gidalerroak behin betiko onartu aurretik. Plan hori gauzatzeko lana Gipuzkoako lurralde historikoari zegozkion lurraldearen sei lurralde-plan partzialak orokorrean formulatzeko prozesuan sartu zen, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baterako ekimenez. Fase hori 1995ean amaitu zen, "Donostiako eremu funtzionalako Lurraldearen Zatiko Planaren Aurrerapena" dokumentua egin eta, aldi berean, Gipuzkoako gainerako eremu funtzionalako lurralde-plan partzialen aurrerapenak landu zirenean.

1997an berriz ekin zioten Gipuzkoako Lurralde Plan Partzialak idazteko dinamikari, orduan ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren baterako tutoretzapean. Bigarren aldi horretan Lurralde Plan sei Partzialak banan-banan lantzeari ekin zioten, 1995ean landutako aurrerapenen jendaurreko erakustaldia oinarri hartuta. Donostiako eremu funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren kasuan, lan horiek, hain zuzen ere, Francisco de Leonen egindako 1998ko "Lurralde Plan Partzialaren Aurrerapenaren hasierako balorapen-txostenean" zehaztu ziren.

2001ean prozesuari berriro ekin zitzaion. Idazten hasitako aurrerapen-dokumentua 2002ko abenduan amaitu zen eta 2003an aurkeztu zen jendaurrean. Jarraian, jendaurreko informazioaren bidezko izapidea ireki zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurreko erakustaldian, 2003ko maiatzetik ekainera bitartean, guztira 39 iradokizun-idazki aurkeztu zizkioten Lurralde Plan Partzialaren aurrerapen-dokumentuari. Garai horretan berriz mantsotu ziren behin betiko dokumentua egiteko lanak. Izan ere, 2003ko abenduan Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenari zegokion ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari (IIBE) buruzko azterketa besterik ez zuten egin; horrela, gisa horretako planetarako ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritako prozedura arautua betetzeko.

Geroago, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak enkargatuta beste azterlan batzuk ere egin zirela lurralde planaren osagarri bezala, bereziki, Eremu Funtzionalean etorkizunean izaera estrategikoko beste eragiketa batzuk garatzeko baldintzak betetzen dituzten eremuetan.

- Jaizkibelpe esparruaren lurralde-antolamendua bideratzeko eskema eta Pasaialdeko lurraldea eta Jaizkibelgo korridore intermodala antolatze eskemari buruzko gogoeten dokumentua (2006ko martxoan idatzia).
- Urumeako eta Oria Beheko arroen arteko lurralde loturan Antolaketa Estrategiko Osoaren Proiektua prestatzeko oinarrien proposamenak (lehen zatia: 2005ko Azaroa; bigarren zatia: 2006ko martxoa).

2008.urtearen hasieran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Aldundiko Antolaketa Zuzendaritza Nagusiak Lurralde Plan Partzial izapidetzen jarraitzeko erabakia hartzen dute. 2008ko uztailaren 18an, Lurralde Plan Partzialaren Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorren dokumentu egiteko lanak abiarazten da. Dokumentu honetan, aurrepeneko egungo eduki nagusiak, diagnostiko eguneratua laburbilduz, eta aurrerapenari aurkeztutako iradokizun-idazkiei erantzuteko txostenak gehitzen ziren.

Aldi berean, 08-02-19an hasiera ematen zaio aurretiazko kontsulten izapideari, hala plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Tstatu Legearen 9. artikuluan nola ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, "erreferentziako dokumentua" deritzona jaulkitzearen ondorioetarako, gero dagokion IIBE azterlana egiteko.

2008ko Irailaren 24ko datarekin Euskal Jaurlaritzaren Ingurumeneko Sailak Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalako Lurralde Planaren Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluaketa Orokorrerako erreferentzia dokumentua egiten da.

2008ko abenduaren 12ko datarekin Euskal Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako eta Ingurumeneko Kontseiluak, "Donostiako Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Irizpideak, Helburuak eta Konponbide Orokorren dokumentua onartzen da eta 2009ko Martxoaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahalduen-Kontseiluak erabakitzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorren" dokumentua onartzea, funtsezko izaera ez duten zehaztasunen eranskin bat gehituz.

2010eko urtarilean Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialeko dokumentua idazteari amaiera eman zitzaion Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazio Foralak sustatuz.

2010eko uztailaren 12an Ingurumeneko Kontselariodeak Donostiako Lurralde Plan Partzialeko Eremu Funtzionalako ingurumen inpaktuaren aurretiko txostena formulatzen du.

2010eko uztailaren 16an hasiera batean Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onartu zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako Kontseilariodearen aginduz.

2010eko abuztuaren 16an Gipuzkoak Foru Aldundiko Diputazioaren Diputatuen Kontseiluak, Higikortasun eta Lurralde Antolamenduko Diputatu Foralaren proposizioz, Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren onarpenari atxikimenduak manifestatzea hitzartu zen.

Lurralde Plan Partzialaren hasierako onarpenaren ondoren, interesaturik zeuden administrazioentzako audientzia eta informazio publikoko periodo bat ireki zen, zeina zegokion zenbait luzapenen ondoren, 2011eko urtarrilaren 20an amaitu zen. Informazio publikoko prozesuaren ondorio, erantzun epea luzatzea eskatzen zen 4 alegazio alde batera utzita, 90 alegazio jaso ziren, 79 epe barruan eta 11 epe kanpo.

2011ko maiatzan, "Alegazioen Edukien Analisi"en dokumentua lantzen da, non Lurralde Plan Partzialean planteatutako kuestioen esposizio publikoko prozesuaren ondorio gisa lehenengo ebaluazioa egiten den.

2011ko maiatzeko udal- eta foru-hauteskundeak eta 2012ko urriko hauteskunde autonomikoen ondoren, eta 2011n jasotako alegazioak aztertuta, Lurralde Plan Partziala berraztertzeko prozesua hasi zen, lurraldea antolatzearen haren proposamenekin lotuta. Prozesu horren emaitza izan zen hasiera batean onartutako proposamenarekiko zenbait aldaketa sartzea. Hala, beste alegazio-fase bat errazteko eta izapidean gardentasuna ziurtatzeko, aldatutako proposamena berriz ere hasierako onarpenaren mende jartzea erabaki zen.

2015eko martxoaren 27an hasierako onarpenerako agindua eman eta berori martxoaren 30eko EHAA, apirilaren 10eko GAO eta maiatzaren 23ko BOEn argitaratu ondoren, honako izapidetze- eta partaidetza-egintza hauek gauzatu ziren:

- 2015eko apirilaren 15ean, herritarrei irekitako deialdian, Lurralde Plan Partzialaren dokumentua EHUko Carlos Santamaria Donostiako ikastegian aurkeztu zen.
- 2015eko maiatzean, azpieskualdetan elkartutako udalekin bilerak egin ziren: maiatzaren 7an, Urumearen azpieskualdeetan bildutako udalekin (Andoain, Astigarraga, Hernani) eta Oria behekoan bildutakoekin (Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia); eta, maiatzaren 8an, Txingudiko azpieskualdeetan (Hondarribia, Irun) eta Oarsoaldekoetan (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia) bildutakoekin.
- Ahalik eta parte-hartze handiena sustatzeko asmoz, dokumentuari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jakinarazteko epea zabaldu zen alegazioak aurkezteko, bai administrazio publikoen aldetik, bai herritar eta agente interesdunen aldetik. Hala, epea irailaren 15etik azaroaren 15era luzatu zen.
- Jendaurreko erakustaldian eta administrazioei entzuteko aldian, guztira 58 alegazio-eredu jaso ziren, eta Lurralde Plangintza eta Hirigintza Sailak horiek aztertu eta baloratu zituen.
- Aurkeztutako alegazioak xehetasunez aztertzeko asmoz, honako bilera hauek egin ziren Eremu Funtzionaleko udal bakoitzarekin eta Pasaia Portuko Agintaritzarekin ere: 2016ko urtarrilaren 26a (Hernani, Astigarraga eta Oiartzungo udalak), urtarrilaren 28a (Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak), urtarrilaren 29a (Irun eta Hondarribiko udalak), otsailaren 2a (Errenteria, Lezo eta Pasaia Portuko udalak) eta otsailaren 3a (Donostiako Udala eta Pasaia Portuko Agintaritza).
- Bestalde, erantzun eta kontuan hartzeko asmoz, jasotako txosten sektorial hauek aztertu ziren:
 - Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
 - Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.

- Industria eta Energia Ministerioa. Telekomunikazioetako eta informazio-gizarterako Estatuko Idazkaritza. Telekomunikazioetako eta informazio-teknologietako Zuzendaritza Nagusia.
- Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua. Bide-azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskal Herriko Ingurumen Batzordea.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Euskadiko Garraio Agintaritza.
- Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Landaberri.

Aurkeztutako alegazioak eta txosten sektorialak aztertu eta baloratu ondoren, dokumentu bat elaboratu zen non 2015eko martxoaren 27an hasierako onarpena lortu zuen dokumentuarekiko sartutako aldaketak jaso ziren.

Behin-behineko onarpena 2016ko martxoaren 3an ezarri ostean, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena, ingurumen-inpaktuari buruzko behin betiko txostena eta ondorengo sektore-txostenak jaso ziren:

- Sustapen Ministerioa. Garraio Idazkaritza Nagusia. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Sustapen Ministerioa. Estatuko Portuak.
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. Ingurumeneko Estatuko Idazkaritza. Itsasertz eta itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- Defentsa Ministerioa. Defentsa-azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.

Informe hauek aztertu eta baloratu ondoren, 2016ko martxoaren 3an onartutako dokumentuaren testu bateratua elaboratu zen; Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari behin betiko onar zezan helarazi aurretik.

2.- INFORMAZIO LABURPENA

2.1.- LURRALDE ESPARRUA

Lurralde-plan partzial honen antolamendu-esparrua Donostiako Eremu Funtzionalak osatzen du, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritakoaren arabera. Eremu horretan, Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbilgo udalerriak biltzen dira.

Donostiako Eremu Funtzionalak 376 km²-ko azalera dauka. Lurralde horretan 400.000 biztanle baino gehiago bizi dira. Beraz, biztanleria-dentsitate handiko (1.000 bizt./km²) lurraldea da, gizakiak kokatzeko baldintza apartak dituen, klima atsegina, paisaia benetan bikaina eta kokapen geografiko estrategikoa, Europako komunikabideen nahitaezko pasabidea da-eta.

Egoera geografiko bikain hori egiaztatzeko aski da 30 x 15 kilometroko laukizuzen baten lurralde-esparru txikian hiru badia (Txingudi, Pasaia eta Kontxa) eta lau ibai (Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria) daudela ikustea, itsasotik berehala gorantz abiatu eta barnealdean 500 eta 800 metro bitarteko kotetaraino iristen den paisaia menditsuan. Esparru topografiko hori taxutzen duten elementu geografiko nagusiak itsasbazterreko mendikate txiki bat (Jaizkibel, Ulia eta Mendizorrotz mendiak) eta barnealdeko hainbat haran dira, bereizten dituzten lepoen baldintza topografiko leunei esker elkarrekin ongi konektatuta daudenak.

Lurraldearen oinarritzko morfologia Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria ibaien haranek eta badien inguruko hedapen txikiek ezaugarritzen dute. Haran txiki horiek malda handiko hegalek dituzten mendi-formazioek eta horien eta ibai-haranen arteko trantsizio-zona batean (mendi-hegalek eta mendixkek okupatutakoan) eratutako lurralde malkartsuan kokatuta daude. Goragune nagusiak Mendizorrotz (+415) eta Jaizkibel (+545) mendiak dira kostaldean, eta Andatza (+560), Buruntza (+440) eta Adarra (+815) mendiak eta Aiako Harria (+825) mendigunea barnealdean.

Haranek osatzen duten segida espaziala itsasertzetik hurbil samar dauden lepoen bitartez lotzen da; izan ere, lepo hauen altitude txikia oso mesedegarria da bertatik komunikabide-sareak igarotzeko. Kasu batzuetan, hiri-garapenak berak muino horien muga gainditzen du. Hala, itsasertzarekiko paralelo doan hiri-korridore jarraitua osatzen du.

Eremu Funtzionalari dagokion lurraldearen baldintza naturalei buruzko erreferentziak ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterketaren (IIBE) dokumentu osagarrian biltzen dira. Azterketa horretan, xehetasunez deskribatzen dira lurralde-plan honen xede den lurraldea analizatzeko kontuan hartutako aldagaiak. Horien artean daude honako hauek buruzkoak: ingurune fisikoa (klimatologia, geologia, edafologia eta hidrologia); ingurune biotikoa (landaredia eta fauna); giza ingurunea (ondare kulturala, demografia, enplegua eta giza garapena, airearen kalitatea eta zarata); arrisku naturalak (uholdeak); eta lurzoru kutsatuak.

2.2.- EREMU FUNTZIONALAREN HIRI GARAPENA

Donostiako Eremu Funtzionalaren hiri-garapena, hasiera batean, mugatuta zegoen garrantzi handieneko hiriguneen ingurunera (batez ere, Donostia, Irun, Erreterria eta Hernani) eta jarduera-guneen ingurunera (Pasaiaiko portua eta muga, besteak beste); baina, ondoren hedatzen joan da komunikazio-korridoreetan zehar.

Topografia Gipuzkoaren gainerakoan baino leunagoa denez, hiri-garapen berriak gainditu egin ditu haran-hondoen mugak eta konurbazioaren ezaugarriak dituen hiri-korridore erdi jarraitua osatu du itsasertzari paralelo jarraitzen dion barne-lerro batean zehar.

Hiri-jarraitutasuna hegoalderantz hedatzen da Oria eta Urumea ibaien haranetan zehar, azkenik Andoainen elkartuz, Tolosaldearekin komunikatu eta elkartzeko errotula gisa konfiguratzeko den udalerrir horretan.

Donostiako Eremu Funtzionalak guztira duen 376 km²-ko azaleratik, gaur egungo hiri-garapenaren lurraldeak 5.600 ha inguruko azalera hartzen du; hau da, azalera guztiaren % 15 inguru. Garapen hori honela banatuta dago: 2.700 ha bizitegi-kokaguneei dagozkie, 1.300 ha jarduera ekonomikoko eremuei, 900 ha ekipamendu publikoko zonei eta 700 ha komunikazio-sareetara eta azpiegitura-elementuetara zuzenduta daude.

Hiri-garapen gehienak haranetako eta kostaldeko behealdeko zonetan kontzentratu dira orain arte, espazio-asetasun handiko puntu konkretu batzuetan zona garaia goetarantz hedatu badira ere.

Eremu Funtzionalari dagokion lurraldearen gainean 406.000 bat biztanle daude ezarrita (2015eko INEren datuen arabera). Horietatik, 390.000 biztanle inguru hiri-ingurunean daude ezarrita, eta gainerako 16.000k landa-ingurunean.

Egun, Eremu Funtzionalak gutxi gorabehera 186.000 etxebizitzako parkea du. Horietatik, 181.000 hiritarrak dira, eta 5.000 landatarrak.

Donostiako eremu funtzionaleko bizitegi-eremu hiritarretako batez besteko dentsitatea hektareako 68 etxebizitzakoa da; indize hori oso onargarritzat har daiteke Lurralde ezaugarri topografikoak kontuan hartuta. Dentsifikazio puntualik handieneko eremuak Pasaiaiko portuaren, Donostiako erdigunearen eta Irun, Hernani, Lasarte-Oria eta Andoaingo guneen inguruan kontzentratuta daude.

Eremu Funtzionala osatzen duten hamahiru udalerriek berezko nortasuneko hiriguneen multzoa osatzen dute. Hirigune horiek egitura dibertsifikatua eta orokorrean neurrizkoa badute ere, udal-banantzearen adierazleak aztertuz gero, tokian-tokian desoreka nabarmenak dituztela ikusten da:

- Udalerri batzuen jarduera ekonomikoa batez ere hirugarren sektorekoa da (esaterako, Donostia eta Hondarribia). Beste batzuen, ordea, nagusiki industrialak da (adibidez, Lezo, Andoain, Usurbil, Lasarte-Oria eta Hernani).
- Udalerri bakoitzaren biztanleria aktiboaren eta horietan eskaintzen diren lanpostuen arteko erlazioari dagokionez, ikusten denez, Errearteria, Hondarribia eta Lasarte-Oriako udalerrien lan-eskaintzak defizit nabarmena dauka udalerri bakoitzaren biztanle kopuruarekiko. Aldiz, beste udalerri batzuetan (esatera, Oiartzun, Astigarraga eta Usurbil), euren biztanleria egoiliarrena baino lan-eskaintza handiagoa dago.
- Udalerri batzuek, hala nola, Pasaia, Errearteria eta Lasarte-Oriak, Lurralde behealdeko zonetan lurzoru urbanizagarri posiblearen erreserba urriak dituzte hiri birsokuntzako gunez gain, beste batzuek, ordea, adibidez Hondarribia, Lezo, Oiartzun, Usurbil edo Urnietak toki-erreserba garrantzitsuak dituzte oraindik.
- Bigarren bizitokiak batez ere Hondarribian eta Donostian biltzen dira.
- Donostiak, Oiartzun eta Hondarribiak Gipuzkoako errenta handienak dituzte. Lezo, Errearteria eta Pasaia, aldiz, Gipuzkoako errenta-maila txikieneko udalerriak dira.

Nolanahi ere, hamahiru udalerriek osatzen duten multzoan daude haien homogeneotasunaren gakoak, funtzionalki hiri-konurbazio batean bilduta daudelako eta oreka orokor nabariko lurralde-unitatea eratzen dutelako. Oreka hori, batik bat, biztanleriaren neurrizko banaketan eta lurralde orokorraren erabilera desberdinak lurzoruen zatiketa konpentsatuan oinarritzen da.

2.3.- DEMOGRAFIA

Donostiako Eremu Funtzionaleko dinamika demografikoa aurreko mendean zehar egiaztatutako kanpoko migrazio-prozesuetan eta Gipuzkoako hiriburuko Eremu Funtzionalean biztanlegoaren motel baino etengabeko kontzentrazioan oinarritzen da. 2001.urtean, eremu funtzionaleko biztanleria 387.847koa zen eta 2015. urtean 406.418 biztanlera igo da.

Termino historikoetan, bilakaera horrek honako etapak eta lurralde-ñabardurak azaltzen ditu:

- 1900. urtean Eremu Funtzionalak 77.312 biztanle zituen, eta erdiak bai baino zertxobait gehiago (39.641 biztanle) Donostiako udalerrian biltzen ziren. Irun zen (9.669 biztanle) gainerako udalerrien artean 5.000 biztanletik gorako bakarra.
- 1900 eta 1940 artean, hiriburuak, Pasaia eta Errenterik, batez ere, osatzen dute erakargune eta hazkundegune dinamikoena, gero eta garrantzi erlatibo handiagoa hartuz Eremu Funtzionalaren multzoan. Gainerako udalerriek, termino absolutuetan demografikoki hazi egiten badira ere, pisu erlatiboa galtzen dute.
- 40ko hamarkadan, Gerra Zibilaren ondorengo aldia, joera hori goitik behera aldatzen da. Geroago 1960 eta 1970 artean puntu gorenera iristen den garapen ekonomiko eta immigrazio-fluxuak erakartzeko prozesuaren esparruan, hiriburuak garrantzia galtzen du eta eremu funtzionaleko biztanleriaren % 62 izatetik % 45 biltzera igarotzen da. Hazkunde-prozesua hiriburuaren inguruko udalerrietan kontzentratzen da eta, horren ondorioz, horiek Eremu Funtzional osoan duten pisu erlatiboa ikaragarri handitzen da: 1940 eta 1981 artean, Lezo-Errenteria-Pasaia udalerrri multzoa Eremu Funtzionalako biztanleriaren % 13 izatetik % 19 izatera igarotzen da; Donostialdeko hego-mendebaldea -Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil- % 7tik % 12ra igarotzen da; eta Bidasoa Beherea % 12tik % 17ra.
- 80ko hamarkadan ziklo berri bati ematen zaio hasiera, mende horretan lehen aldiz Eremu Funtzionalean biztanleriak behera egiten baitu. Pasaia badi eta, neurri txikiagoan, Donostialdeko hego-mendebaldea dira, hain zuzen ere -aurreko aldia dinamikoenak ziren-, biztanleriaren beherakada horren erantzuleak; Donostian, aldiz, biztanleriak gora egiten du, asko ez bada ere, eta Bidasoa Beherea eta Oiartzun dira -hamar urteko % 4,3 eta % 9,5eko hazkunde-tasak hurrenez hurren-goranzko joerarik adierazgarrienak azaltzen dituztenak.

- Azkenik, laurogeita hamarreko hamarkadan, Eremu Funtzionalak hazkundearen ildo berreskuratzen du. Donostiak eta Irunek hamarkada osoan zehar biztanleriaren hazkunde-erritmo iraunkorraren oinarria ezartzen dute, eta oinarri horren gain portaera desberdinak azaltzen dira. Eremu funtzionalaren gainerakoan udal-mailako portaera kontrajarriak ikus daitezke. Pasaia eta Erreterria laurogeiko hamarkadan hasitako beheranzko dinamikan jarraitzen duten udalerriak dira, baina Lezo eta Oiartzunek portaera nabarmenki positiboak azaltzen dituzte Oarsoaldean. Urumearen haranean ere portaerak nabarmen aldatzen dira udalerri batetik bestera: Astigarraga eta Urnietak Eremu Funtzionalako hazkunde-jarraibide garrantzitsuenak azaltzen badituzte ere, Hernani geldialdi-dinamikan sartzen da laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian eta biztanleria behera egiten hasten da 1998tik aurrera. Usurbilen, Lasarte-Oria eta, bereziki, Andoainen, aldi horretan biztanleriak nabarmen egiten du behera; horietatik Usurbil da 1998az geroztik joera hori aldatzen hasten den udalerri bakar.

Aldi berrienean (2001etik 2015era) izandako hazkunde demografikoaren udalerrikako analisi xehatuak adierazten duenez, hazkunde demografiko portzentualaren indize altuena Astigarragak izan du (batez beste, urteko % 4). Usurbil, Hondarribia, Urnieta eta Oiartzungo udalerriek hazkunde-erritmo iraunkorra izan dute, urteko % 0,73 (Oiartzun) eta % 1,20 (Usurbil) artekoa. Andoain, Hernani eta Irun neurritz hazi dira, % 0,30 (Hernani) eta % 0,61 (Irun) artean; berriz, Erreterria, Lezo, Donostia eta Lasarte-Oriako biztanleriak egonkor iraun du oro har, % 0,07 (Erreterria) eta % 0,24 (Lasarte-Oria) arteko neurritzko hazkundeaz. Azkenik, Pasaia biztanleria urteko % 0,24 jaitsi da. Ondorioz, Eremu Funtzionalak biztanleriaren hazkunde arina izan du (% 0,34koa) adierazitako 2001-2015 aldian, eta 406.418 biztanlera iritsi da.

Ondorengo taulan ikus daiteke Eremu Funtzionalako udalerri guztiek 2001-2015 aldian izan duten bilakaera demografikoa.

Donostialdea Eremu Funtzionaleko udalerrietako biztanleria. 2001 – 2015

BIZTANLERIA BIZTANLE KOPURUAN (2001-2015)																URTEROKO HAZKUNTZA
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	
Andoain	14.080	13.966	13.886	13.803	13.993	14.082	14.215	14.427	14.679	14.662	14.689	14.646	14.630	14.655	14.668	0,30%
Astigarraga	3.641	3.796	3.951	4.109	4.151	4.242	4.386	4.522	4.678	4.709	4.818	4.999	5.304	5.535	5.688	4,02%
Donostia	181.064	181.700	181.811	182.644	182.930	183.308	183.090	184.248	185.357	185.506	186.185	186.409	186.500	186.126	186.095	0,20%
Errenteria	38.903	38.697	38.397	38.141	37.873	37.853	38.336	38.505	38.767	39.020	39.217	39.324	39.178	39.230	39.276	0,07%
Hernani	18.531	18.661	18.747	18.792	18.827	18.943	19.119	19.229	19.289	19.285	19.296	19.284	19.354	19.601	19.600	0,41%
Hondarribia	15.050	15.368	15.493	15.727	15.940	16.073	16.226	16.315	16.458	16.464	16.499	16.518	16.795	16.894	16.945	0,90%
Irun	56.625	57.618	58.036	58.899	59.508	60.261	60.416	60.914	60.951	60.938	61.006	61.102	61.113	61.195	61.481	0,61%
Lasarte-Oria	17.502	17.413	17.628	17.734	17.646	17.582	17.592	17.694	17.782	17.856	17.889	17.922	18.024	18.082	18.093	0,24%
Lezo	5.853	5.928	6.013	5.920	5.911	5.945	5.966	6.022	6.003	5.988	6.028	6.027	6.054	6.007	5.990	0,17%
Oiartzun	9.203	9.297	9.407	9.633	9.730	9.829	9.806	9.846	9.894	9.947	10.006	10.018	9.995	9.970	10.148	0,73%
Pasaia	16.557	16.337	16.145	16.078	16.116	16.160	16.091	15.996	15.990	15.977	15.945	15.885	15.849	15.929	16.012	-0,24%
Urnietea	5.543	5.733	5.824	5.807	5.847	5.896	5.998	6.065	6.135	6.145	6.167	6.218	6.214	6.198	6.239	0,90%
Usurbil	5.295	5.388	5.474	5.512	5.661	5.723	5.718	5.793	5.919	6.013	6.062	6.090	6.111	6.168	6.183	1,20%
GUZTIRA	387.847	389.902	390.812	392.799	394.133	395.897	396.959	399.576	401.902	402.510	403.807	404.442	405.121	405.590	406.418	0,34%

Iturria: Estatistika Institutu Nazioanala

2.4.- ESPARRU SOZIEKONOMIKOA

2.4.1.- 2008-2014ko GELDIALDI ETA DOITZE ALDIA


2008an eztanda egiten duen finantza krisiaren ondorioz, ziklo ekonomiko bat guztiz ixten da eta denboraldi zurrumbilotsu bat irekitzen da finantza sistemaren sendotasuna eta hazkuntza eredua zalantzan jartzen duena.

Finantzaketarako lorbidia estutzeak kontsumoaren gainbehera eta inbertsioaren geldialdia ekarri ditu berekin, baita hedapenaldian metatutako finantza publikoen gairindimentsionamenduak eta desorekak saneatzeko beharra ere. Horrek mugatu egin du maniobra-marjina publikoa ohiko pizgarri-neurrietatik abiatuta suspertu ahal izateko. Faktoreen mukurua horrek jardueraren moteltze orokorraren egoera ekarri du, eta egoera hori atzeraelikatu da zenbaitek “krisi perfektua” deritzon horretan.

Nahiz eta Espainian balaztatze ekonomiko orokorra eraikuntzako sektorean nabarmenen izan den, Europako beste herrialdeetan eta Euskadin gehien bat, gainerako estatuan baino kuantitatiboki humilagoa den eraikuntzako sektore batekin, 90. hamarkadako krisian erantzun zen moduan, honek ere eztanda finantziarioa baino lehenagoko indutrialia den ereduaren garatzen hasi zen.

Euskal Autonomi Erkidegoan, sektore industrialean izan da non enpleguek zifra absolutuetan murrizketa garrantzitsuenak jasan dituzten, jada adierazitako higiezin eta eraikuntza galeren bidez larriagotuak. Egoera honetan, aurreko krisiarekin gertatu ez zen bezala, zerbitzuak ez dira galera hori konpentsatu dezaketen garapen kuantitatiboko alternatiba izan. Zentzu honetan, nahiz eta berritzaileak dire jarduera tertziarioak haien etorkizunerako bidea irekitzen ari diren, ohizko zertzi komertzialak- kuantitatiboki enpleguaren euskarri sendoa- partzialki arratratuak izan diran kontsumoaren jaitsieraren ondorioz, horrela, hustutze orokorreko eta enpleguaren galera handiko egoera bultzatzen delarik. Enplegu galera, zehazki neurridunagoa dena Estatuan baino, batez ere 2008-2010 bitartean, prozesu hau berdin jasaten bukatu du.

Euskadiko jarduera sektoreak okupazioaren galeraren banaketa %etan 2008-2013 bitartean.



Iturria: Gizakiaren Geografia Euskadiko Krisian. Luis Sanzo (Datuak PRA. Eustat, Media 1. eta 2. Hiruhilabeteak)

2.4.1.1.- DONOSTIAKO EREMU FUNTZIONALEAN IZANDAKO DOIKUNTZAK

Donostiako Eremu Funtzionala nagusi tertziarioa den enplegua osatzen du. Errealitate espezifiko honetatik abiatuz, aldiko zifrek 2.4.2. Atalean deskribatutako eredu orokorrearekin bat etortzen da.

2007 eta 2013¹ urteen artean familien portaera eta informazioari erreferentzia eginez hurrengoa adierazi daiteke:

- Eremu Funtzionalean auzotarra den biztanleriaren okupazioa %8.1 jaisten zen (14.713 lanpostu)
- Sei urteetan langabezian zegoen biztanleria 6.000 lanpostu baino gutxiago handitzen zen (langabezia tasa %3.0), 28.000 lanpostu baino gehiago arte (langabezia tasa %14.4) atzerapen prozesu batean 4.9 biderkatuz. Ez bakarrik enplegu galeraren sendotasuna hartzen duen langabezia multzoa, baizik eta atonia ekonomiko denboraldi horretan merkatuan lehenengo aldiz sartzen ziren gazte mordoa, eta zailtasunezgo egoeren aurrean momento arte ez-aktibo zeuden kolektiboaren zati handiak (soldaten jaitsierak, lanpostuaren eta familiako beste senideen diru-sarreraren galerak,...) enplegu bilaketa aktibo bat hasten dute eta horrek, langabeziako listak oraindik handiakoak egiten ditu.

¹ Lan-merkatuaren zentsua (Eskaintza fasea) 2007 eta 2013

2007 eta 2012 artean Eremu Funtzionalean establezimendu enpresarialek eskeintzen zituzten zifrak aztertuz, eboluzioa oso antzeko zentzuan onartzen da:

- Establezimendu enpresarialak bi jardueren bitartez %13.9 murrizten da; eta %11 enplegu sortzen dute (19189 lanpostu).
- Sektorialki, Donostialdea- Bidasoa Beherean instalatutako indutstiak 2012.urtean haren lanpostuen %21.2a galtzen du 2008.urtearekin konparatuz; eraikuntzak %23.5 galtzen du eta zerbitzuek, ehun enpresarialen eta eremuko enpleguaren sendotasuna osatzen dutenak, 2008ko lanpostuen jaitsiera neurridunagoa ikusten dute %7.1arekin.

Horrela, zifra absolutuekin, Industria (-5.905 enplegu) eta Eraikuntza (-4.053 enplegurekin) egindako doikuntzetan sektore galtzaileak dira. Haien bien artean, 2008 eta 2012 artean Eremu Funtzionalean ehun produktiboagatik galdutako %50 enplegu baino gehiago hartzen dute. Horregatik, Eremu Funtzionaleko egitura ekonomikoa tertziaritzen da oraindik gehiago, eta zerbitzuek 2008.urtean enpleguen %74.2 suposatzen dutenak 2012.urtean %76.8 suposatuko dute.

- Industrian, energia eta komunikabideen eremu berritzailekin erlaziotatuak izan ezik, galera dezente orokorra da. Hirugarren sektorearen barnean, Eremu Funtzionaleko enpleguaren euskarri sendoa jarduera komertzial klasikoenak dira, eta kontsumoarengan menpekoak direnak krisialdiagatik gogorrago arrastatuak izan dira: batez ere, industriaren menpeko den garraioa eta eraikuntza; eta txikizkari merkataritza. Gainera honek, berkonbertsio gor eta pixkanako prozeu batean, zeina elektronikaren merkataritzaren inpaktua eta multinazionalak diren enpresa handien aurrerapenak, ohizko independente eta atomizatua den hiriko merkataritza eredua zalantzan jartzen duen.

Jarduerarekin erlazionatutako biztanleria 16 eta 64 urte bitartean. (2007-2013)

DONOSTIALDEA + BIDASOA BEHEREARAKO biztanleria jarduerarekin erlazionatutakoa					
	2007	2013	Δ2007-2013		
			Abs.	%	
Biztalenria Aktiboa	188.078	195.952	7.874	4,2%	↑
Okupatutako Biztanleria	182.365	167.652	-14.713	-8,1%	↓
Langabezia dagoen Biztanleria	5.714	28.299	22.585	395,3%	↑
Biztanleria Ez-Aktiboa	72.974	58.839	-14.135	-19,4%	↓
16-64 urte artean Biztaleriare Guzтира	261.052	254.791	-6.261	-2,4%	↓

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda (Eskaintza). Eustat

Jarduera indizeak. (2007-2013)


DONOSTIALDEA + BIDASOA BEHEREA Indizeak			
	2007	2013	Δ2007-2013
Aktibitate Tasa	72,1	76,9	+4,9
Langabezi Tasa	3,0	14,4	+11,4

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda (Eskaintza). Eustat

Jardueren Talde Handiengatik Banatutako Lanpostuak. (2008-2012)

Jarduera	Lanpostuak					
	2008	2012	2012%	Δ2008-2012		
				Abs.	%	
Industria	27.827	21.922	14,1%	-5.905	-21,2%	↓
Eraikuntza	17.21	13.157	8,5%	-4.053	-23,5%	↓
Merkataritza, Ostalaritza eta Konponketak	45.136	39.619	25,5%	-5.517	-12,2%	↓
Garraio eta Komunikabideak	13.411	10.786	6,9%	-2.625	-19,6%	↓
Merkataritza Zerbitzuak	34.017	31.076	20,0%	-2.941	-8,6%	↓
Hezkuntza, Osasungintza eta Administrazioako beste Zerbitzuak	36.786	38.638	24,9%	1852	5,0%	↑
DONOSTIALDEAKO ESKUALDEAN GUZTIRA	174.387	155.198	100%	-19.189	-11,0%	↓
GIPUZKOAN GUZTIRA	901.801	814.455		-87.346	-9,7%	↓

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda (Eskaintza). Eustat

Jarduera sektoreengatik sortutako/galdutako enpleguaren eboluzioa. (2008-2012)

Iturria: Lan Merkatuaren Errolda. 2008-2012 (Eskaria) EUSTAT

2.4.1.2. PARADIGMA PRODUKTIBO ETA SOZIALAREN TRANSFORMAZIOAK

Erregistraturik dauden datuen magnitude eta abiadura horren altuak izan dira, balio sozial eta gobernuaren ikuspuntu eta kudeaketa publikoaren transformazioan sartzeko hauen inpaktuaren irakurketa nabarmenki gainditu dela; jada existitzen diren fondo dinamikoak azeleratzen dituen logikan oinarrituz.

- Lan-merkatua gogortzeak berekin dakar enpleguak galtzea eta lan-merkatuan sartzen diren belaunaldientzako aukerak murriztea, baita soldatak jaistea eta gero eta lan-ezegonkortasun handiagoa eta horri lotutako gizarte-ahultasuna sortzea ere. Arazo horiek, lehenik eta behin, kontsumoa uzkuertzen dute, eta **zuhurtzia eta atxikipeneko egiturazko jarrerako sorrarazten dituzte; balio berri zorrotzagoak bultzatzen dituzte; errotze-sena aldatzen dute** eta langile kolektibo dinamikoenen ezaugarrien arteko lurralde-mugikortasuna berriz kokatzera behartzen dute.
- Jasangarria ez den defizitaren eta zor publiko handiaren pean, **aurrekontu-egonkortasuna** indartu egiten da gobernantza publikoaren zuzendari gisa.
- Lehiakortasunaren bilaketa **pertsonen, ezagutzaren, sormenaren, berrikuntzaren eta kanpo merkatuetara irekitzearen balorearen sorreran** oinarritzen da.

- **Industria “tertziarizatu” egiten da** bere kate-maila estrategikoan diseinuarekin erlazionaturikko I+G+b, asistentzia teknikoa eta bezeroaren laguntza modu hazkorrean gehitzen dituelarik.
- **Iraunkortasuna** eta baliabideen erabilera efizienteak eta negutegi efektuaa sortarazten duten gasen emisioen murrizketak, aurrezteak eta efizientzia energetikoa lehenengo jartzen dira, aldi berean, higikortasun iraunkorraren sustaparekin.
- **Teknologia berriak** jarduera, hiri, lurralde eta jardun adimendunetara zabaltzeak berekin dakar informazioa eta horren aplikazio teknologikoak funtsezko elementu izatera. Aldi berean, ekonomia desmaterializatu baten segmentua hazteak, Internetek dakartzan aukeretan bermatuta, bigarren maila batera darama haren kokapenari buruzko eztabaida.

Gizarte eta ekonomi paradigma produktiboaren aldaketa handien ilustrazio elementuak dira aurrekoak, bizitegi, azpiegitura eta apostu sektorialen berritze eta erlazionaturiko beharren mailan lurralde ekonomiko irakurketa bat aurkezten duena.

Etxebizitza

Aurretiko hazkuntzaren elementu nagusia, bizitegia, transformatzen den lehenengoa da. Eraikuntza eta gizarte mailaren sektorearen zabaltze iruditik, bukatugabeak dauden promozioekin, kaleratzeekin, bizitza osorako lotzen duten egoera ekonomikoekin, lurralde higikortasunaren balaztatzearekin... erlazionatzea pasa da.

Testuinguru berrian, eta jada bermatutako famili transformazio markuan, biztanleriarentzako jabetza kuasi sahiestezina den aukera gisa kuestionatzen da eta alokairua aukera interesgarri gisa izaten hasi da, eta kolektiboki bizitegi publikoaren sustapenarekin erlacionatu egin daitekena. Egoera berri honetan, udalek lurzorua eta bere kudeaketa garapen ekonomikoaren elementu sistematikoa izateari uko egiten diote, kontu hartzeko aukera ekonomiko eta iraunkor batekin kontziliotzen duen markoa progresiboki berkokatzeko zentzu zabal batean. Krisi aurretiko bizitegien proiektioak onak errebisatu behar dira, irizpide eta balore berrien arabera, eta birgaitze eta egungo parkearen optimizazioa sektorearentzako eta biztanleriaren bizi kalitatearen hobekuntzarako sustapen ekonomiko iraunkor eta desiragarriaren aukera gisa aurkezten da.

Modu berean, iraunkortasunaren ikuspegitik, etxebizitza bakoitzean dauden biztanleen kopuruaren eboluzioa kuestionatzen da, eta etxebizitzaren forma berriek eta erabilerek eta okupazioek ere berritzailea den eremu bat ere irekitzen dute.

Finantza publikoak eta azpiegiturak

Aurrekontu-egonkortasunaren konpromisotik, finantza publikoek garai berrietara egokitzeko aupadari aurre egiten diote arrazionaltasun-logika baten barruan. Hala, aurrekontu-mugen eta ingurumen-iraunkortasunaren binomioak bi irizpide sartzen ditu, iragazten zorrotzak, eta horrek litezkeen azpiegitura-aupadak diapasoi berri batean birkokatzen ditu: kudeagarriagoa eta iraunkorragoa ekonomiaren, lurraldearen eta gizartearen alorretan.

Ezagutza Baliabide Ekonomiko gisa

Ezagutzan oinarrituriko hazkuntzak ikerketa eta berrikuntza etorkizuneko garapen potentzialeko oinarri bilakatzen du. Eta zentzu honetan, Eremu Funtzionalak entitate kopurua handian, teknologia eta ikerkuntza zentruak, enpresak, hirugarren sektoreko entitateak eta euskarri diren azpiegiturak biltzen ditu, horien guztien artean kuantitatiboki nabarmena den “berrikuntza ehuna” osatzen delarik. Bakarrik Donostian 42 entitatek, topologia eta ikerkuntza esparru edo landutako disziplina ezberdinekoak² (Unibertsitate esparruko entitateak, Kooperazio Ikerkuntza Zentruak, Bikaintasuneko Oinarritzko Ikerkuntza Zentroak, Teknologia Korporazioak, Nazioarteko Garapen eta Transparentzi Teknologikoko Zentroak etab.) Hauek Euskadiko Zientzia Teknologia eta Berrikuntza Sarean (EZTBS) pisu handia dutenez, esparru honetan lanpostuen kopurua krisi garaian (2008-2012) nabarmenki igo da (+%24), eta gainera EAE (+%21,9) eta EB-28(+%8,2) baino gehiago. Eboluzio hau 3.206 lanpostuetan kontzentratzen da B+G-ari erlazionaturik daudenak Donostian 2012an, horietako %70ak ikerlari profila betetzen duelarik.

² **Unibertsitate eremuari elkartutako erakundeak:** Universidad del País Vasco, Tecnun, Mondragon Unibertsitatea, Basque Culinary Center; **Ikerketa Kooperatibko Zentroak (CIC):** *CIC biomaGUNE, CIC nanoGUNE, CIC tourGUNE*; **Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak (BERC):** *Materials physics center, BCBL-basque center on cognition brain and language, centro mixto csic, Centro de Física de materiales, Donostia International Physics Center*; **Zentro Teknologikoak:** *FUNDACIÓN TECNALIA RESEARCH & INNOVATION, CEIT-IK4, CIDETEC-IK4, JAKIUNDE- ACADEMIA DE LAS CIENCIAS*; **Ziurtapen eta Laborategi Erakundeak:** INBIOMED, ERAIKER ASOCIACIÓN; **Teknologiaren Garapen eta Transferentziarako Nazioarteko Zentroak (C.I.D.T.T.):** VICOMTECH- IK4; **Osasuneko I+G Unitateak:** ASOCIACIÓN INSTITUTO BIODONOSTIA; INGEMA (INSTITUTO GERONTOLÓGICO MATÍA); FUNDACIÓN CARLOS ELOSEGUI DE POLICLÍNICA; CITA ALZHEIMER (Centro de Investigación y Terapias Avanzadas) **Zentro Sektorialak:** Aranzadi, Azti – Tecnalía; **Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak:** Asmoz Fundazioa, Elhuyar, Eusko Ikaskuntza, INVEMA (Fundación de Investigación de la Máquina Herramienta, Gaia, Instituto Vasco de Criminología, Gobernantza Demokratikoaren Institutoa, Itea, Instituto Vasco Etxepare, Orkestra (Instituto Vasco de Competitividad), Uzei, Euskampus Fundazioa

Sektoreko Dibertsifikazioa

Deskribatutako berrikuntza ehunarekin erlazio zuzenean, Euskadiko espezializazio adituaren estrategia (RIS3) **aurreratutako fabrikazioetik, energia eta biozientzietatik, eta ekosistema-aukeren nitxo ezberdinen sorreretik; eta hirigintza planifikazio eta bersorpenatik; eta aisialdi, entretenimendu eta kulturaletik** lurralde garapena bilatzen duena, Donostiako Eremu Funtzionalean bereziki hurbila den lan esparrua aurkitzen du.

Horrela, ohikoenak diren sektore industrialen eta tertziario ohikoenaren atzerapen dinamikaren aurrean, krisialdi garaiak Donostiako Eremu Funtzionalean *“Smart Energy”* edo Ikusentzun-Digitala bezalako sektoreen inguruan berrikuntza dibertsifikazio sektorialeko estrategian apustu bat garatu dela ikusi da. Gainera, hauek bidea irekitzen duten garapen esparruak dira, publiko-pribatuko parte hartze dinamikoetatik, azken hauek, eskuragarri dagoen giza kapitala eta lurralde ezaugarriekin koherenteak diren aukera espazio berriak irekitzeko sendotutako politika sektorialeko elementu gisa finkatu dutelarik.

Tertziario Klasikoaren Berrinterpretazioa

Ostalaritzaren eta turismoaren hirugarren sektore ohikoa bilakatu egin da berrasmatu arte. Hala, haren proiektzioa goratu egin du zenbait planteamendutan oinarrituta. Horietan, eremuaren gastronomia-erakargarritasuna maila goreneko Unibertsitatearen arloko hezkuntza-ekimenetan proiektatu da; bai nekazaritzako elikagaiei dagokienez (esaterako Azti-Tecnalia teknologia-gune, itsas berrikuntzan espezializatua), bai tokiko elikagai-produkzioaren sareari dagokionez ere. Ohiko itsas paisaiaren erakargarritasuna berritu eta zabaldu egiten da zenbait kirolari esker (adibidez, surfa edo itsas kirolarekin lotutako bestelako jarduerak) nahiz, oro har, aisiari esker. Horiek nortasun-zeinu edo elementu berri bat dakarte, eta, horien gainean, turismoa, material berrien eta ekipamenduaren fabrikazioa, denetariko ekitaldien antolamendua, kirol-merkataritza, modarekin lotutako merkataritza, etab. bildu egiten dira hainbat osagarritasun eta gizarte-ikusgarritasun handia dakarren *cluster* ekonomikoaren inguruan.

Kultura berrinterpretatu egiten da sormenezko industrien esparru zabalagoan. Horretan, publizitateak, modak eta diseinuak (zentzurik zabalenean), *“open source”* rekin eta lankidetzazko kudeaketarekin batera, palanka-eremu bat bilatzen dute, talentua oinarri hartuta jarduera ekonomikoa eta enplegu berritzailea bultzatzeko, eta hibridazio-prozesu batean beste sektore batzuen erakargarritasuna eta balioa indartzeko. Prozesu hori ez da Donostian geratzen (esaterako, Tabakalera kultura-etxeak bultzatutako ekimenetan). Aldiz, Eremu Funtzionalaren gainerakoan (adibidez, Errenterian, Lekuona arte eszenikoen gunearen ekipamenduekin) garatzen diren apustu estrategikoetara zabaltzen dira. Gainera, beste ekimen koherente eta osagarri batzuk daude apustu tematiko integratu baten barruan.

Laburdilduz: Hibridazioa

Hortaz, krisi ekonomikoak etapa berri bat irekitzen du, non dibertsifikazio eta integrazio sinergikoak eta ez agresiboak ehun eta jarduera mota ezberdineko lurraldean (produktiboa, ikerkuntzakoa, soziala, teknologikoa...) deskribatutako balore berrietatik abiatuta izaera marka definitzen duen.

Testuinguru ekonomiko horretan, Eremu Funtzionalak espazio metropolitarrak gisa hibridazio jarduera gehiagoetara doa, zeinak dinamika iraunkor batetik erabileren logikak eta espezializazio eksklusiboak progresiboki leuntzen diren. Hibridazio dinamika honek espazio ezberdinetan hartu dezake forma eta lokalizazio estrategikoko eta gaur egun beste erabilera batzuegatik markatutako aukeretako: Irun eta bere trenbide hondartza, Pasaiko badiako espazioak, etab. balio ere eman ahal zaie.

Hala, finkatutako hiri-espazioa adimenez antolatzeak gogoeta bat dakar. Horretan, bereziki, lurraldearen okupazioari dagokionez teknologia berriek dakartzaten eragina eta aukerak kontuan hartzen dira. Hemendik, hiri-espazioaren eredu berri bat sortzen da. Horren balio berezia da leku hibridoek osatuta egotea, horiek ulerturik trantsizioko esparrutzat, eta bizilekura zuzendutako esparruen eta produkzio-prozesuetara zuzenean lotutako eginkizuna dutenen arteko erabilera partekatuko esparrutzat.

2.4.2.- EREMU FUNTZIONALEKO BEREIZGARRI SOZIO EKONOMIKOAK

Jarraian laburtzen da azpieskualdeetan banadutako Eremu Funtzionalaren karakterizazio sozioekonomikoa

- **Donostialdeko Erdigunea**

Donostia, Lurralde Historikoen hiriburu denez, hirugarren sektoreko erakarpen eta erreferentziako poloa izan da historikoki bi jarduera-alderdi orokorretatik: turismo-jarduera adiera zabalean, neurri handi batean bere paisaia-balioei -bai naturakoei bai hirigintzakoei- lotua; izan ere, ostalaritza-jardueretarako eta jarduera ludiko lagungarrietarako sektore eragilea izan da. Eta besterik, biztanle-gune garrantzitsu baten berezko hiri-ekonomiako jardueri lotutako alderdia: merkataritza, hezkuntza, osasuna, finantzak, erakundeak edo administrazioa, etab.

Tertziarizatutako testuinguru horretatik abiatuta, hirigunean zegoen industria pixkanaka bertatik kanporatu izana eta Astigarraga -urte askotan udalerriaren industria- potentzialeko erreserba izandakoa- bereizteko prozesua zeharo garrantzitsuak izan dira hirugarren sektorea erabat nagusi den profila eratzeko (soldatapeko enpleguaren %85). Perfil hau abiapuntutzat hartuz, zuzkidura eta ekipamenduen arloankalitate handia duen ingurune hiritarra eta giza eta enpresa baliabide oso lehiakorak abiapuntutzat hartuta, Donostialdeko erdigunearen etorkizun sozioekonomikoa "Hirugarren Sektoreko Industria" sortu eta dinamizatzeko ahalmenerantz bideratzen da; hirugarren sektore tradizionala gainditzea eta hirugarren sektore aurreratuaren garapenerantz jotzea ulertuz halakotzat.

Horretarako, turismoaren kontzeptu tradizionala konplexuago bihurtu beharra dago, eta, bere orde, kultura, arte, jolas, kirol eta abarretako jardueri lotutako erakargarritasun anizkuna eta dibertsifikatua ezarri, nazioko eta nazioarteko maila eta oihartzuneko (puntu honetan, aipatu beharra dago Donostia kulturaren 2016ko Europako Hiriburu izendatu izatea). Horrez gain, hiri-ekonomiak berezkoak dituen hirugarren sektoreko jarduera tradizionalak jakintza intentsiboko eta balio erantsi handiko ekimen ekonomikoekin osatu beharko dira. Lehen alderdiak eskualde-mailako ekipamendu berezien zuzkiduraren bidean aurrera jarraitzea dakar —Auditoriuma, Biltzar Jauregia, museoak, estadioak eta kirol eta ikuskizunetako instalazioak— eta, ildo horretatik, esparru horietan nazioarteko ekitaldi erakargarriak —hainbat alorretako biltzar eta ekitaldiak: zientzia, enpresa, kultura, artea, kirola, musika, zinematografia, antzerkia, gastronomia, etab.— sistematikoki dinamizatzeko gai den enpresa- eta erakunde-ehuna sortzea kanpotiko erakargarritasunaren eragile gisa. Bigarren alderdiak berrikuntza eta ikerkuntzarako jauzia dakar, enpresa-zerbitzu aurreratuen, informazioaren, teknologia berrien eta abarren bitartez.

- **Oarsoaldea**

Hirugarren sektorea nagusi duten Eremu Funtzionaleko hiru azpieremuek - Donostialdeko Erdigunea, Bidasoa Beherea eta oarsoaldea- industria-pisu handieneko produkzio-egitura duen lurralde-esparrua da -soldatepeko enplaguaren %46-. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago Eremu Funtzionalek per capita BPG txikiena duen azpieskualdea dela, Eremu Funtzionalaren gainerakoak baino balio erantsi txikiagoa sortzen duten industriako zein hirugarren sektoreko jardueren adierazgarri.

Oarsoaldeak kokapen estrategikoa du, Donostialdeko erdigunearen eta Bidasoa Beherearen artean. Horrek berekin dakar ikusmolde sozioekonomiko irekia, bi azpieremuen arteko sinergiak ezartzen dituen; eta, aldi berean, Pasaia portuari lotutako ahalmenak biziki ustiatzen ditu. Lehen kasuan —Donostialdeko erdigunea—, enpresa-zerbitzuen arloan balio erantsia sortzen duten hirugarren sektoreko jardueren balizko xurgapenarekin eta jarduera berrieekin. Bigarren kasuan —Bidasoa Beherea—, Irunen inguruan garatutako logistika-jarduerak Oarsoaldean osatuz eta areagotuz. Era berean, portu-jarduera, garraio-azpiegitura den heinean, funtsezkoa da Eremu Funtzionalan eta Gipuzkoako lurraldearen gainerakoan dagoen industriadako.

Horrek guztiak eskatzen du (bereziki, Pasaiaiko portua eta badia berritu eta leheneratzeko prozesuari dagokionez) eremua hirigintzaren aldetik berreskuratzea eta, orobat, jarduera ekonomikoen eta zerbitzuko mota horrekin bateragarria izango den ingurunea sortzea; enpresa-zerbitzuak, hirugarren sektoreko edo merkataritza-zerbitzuetako jarduera berriekin eta/edo portuari zuzenean lotutako itsas jarduerekin lotuta.

Kuantitatiboki nagusitzen den profil sozioekonomiko horrekin batera, adierazi beharra dago, azkenik, azpieremu honek espazio natural garrantzitsuak dituela, hiriko industria-jarduerak eta hirugarren sektorekoak turismo-jarduera selektiboekin bateragarri egiteko aukera ematen dutenak; aldi berean, turismo-jarduera horiek osagarritasun-profila ezar lezakete inguruko eremuetako turismo-erakargarritasunekin.

- **Bidasoa Beherea**

Aduana-esparrua desagertzearen eta inguruko industria enblematikoen krisialdiaren ondorioz, Bidasoa Behereak birdefinizio sozioekonomikoko prozesua bizi izan du; hirugarren sektoreko paradigma berri dibertsifikatua eta industrietatik hurbil dagoena eta horren sinergiak bateratzen dituen izaten ari da prozesu horren emaitza.

Tertziarizazio-maila handiarekin -% 67-, baina oraindik ere soldatapeko enpleguaren % 33 inguruko industria-pisuari eutsiz, Bidasoa Behereak Eremu Funtzionalaren sintesiko profil sozioekonomikoa konfiguratzeko du gaur egun -bere egitura da Eremu Funtzional osoak duenaren antzekoena-.

Sektoreei zein espazioari dagokienez tertziarizazio aski dibertsifikatuaren alde eginez, Irunek garraioa eta logistika -jarduera gero eta estrategikoagoak eta industriarekiko sinergikoak- ezaugarri bihurtu ditu. Aldi berean, Hondarribiak turismoari lotutako jardueren alde egin du eta gero eta intentsitate handiagoarekin zaintzen ditu -Eremu Funtzional osoan ostalaritzako enplegu-proportzio handiena duen udalerria da; kirol-portuak eta abarrek zuzenean nahiz zeharka sorrarazitako eraginen itxaropenak sortu ditu-.

Dinamika horretan bertan, FICOPA (Euskal Kostaldeko Nazioarteko Erakustazoka) hirugarren sektoreko garapen bateratuaren eta industriarekiko sinergikoaren adierazpidea da. Eta garapen hori gero eta sinergikoagoa da eremu funtzionaleko industriarekin ez ezik, lurralde historiko osoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko industriarekin ere, balio erantsia eta jarduerari eragiteko ahalmena sortuko duten zerbitzu-jardueren bila.

Hirugarren sektoreko ardatz horiekin batera, biztanleriaren dimentsioak berak hiri-ekonomiako jarduerak garapen adierazgarria izango dutela pentsatzeko zentzuzko itxaropenak irekitzen ditu; gainera, Bidasoa Behereak etorkizuneko eurohiriaren eskeman izango duen zentraltasun gero eta handiagoa oso mesedegarria izango da.

Zentzu honetan, Hendaia eta Urrugneko (Txingudi) eremuaren egungo bizitegi kolonizazioa Donostiako Eremu Funtzionaleko biztanleriagatik; eta kontrako zentzuan ere, frantziako publiko handiaren asialdi eta merkataritza beharrak asetzeko Irun-Donostia ardatz osoan zehar oraindik ez du aukera ekonomiko eta sozial hibrido eta partekaturik sortu; hala ere, mugaldearen alde honetan eta bestean lan merkatua nabarmenki ezberdina izaten jarraitzen du. Bere etorkizuneko garapena, seguru aski gerturatze linguistiko batengatik eutsita egongo dena-Hizkuntzaren Industriaren optimizazioa Bidasoa Beherearen hirueledun eremu inguruan- espazio aukera interesgarri gisa nabarmentzen da.

- **Urumea**

Industria nagusi duten Eremu Funtzionaleko azpieremuen artean sektorialki orekatuen dagoen lurralde-esparrua da -soldatapeko enpleguaren % 51 industrian eta % 49 hirugarren sektorean-.

Bere industria-ehuna ez da enpresa handietan oinarritzen, hamarkadan zehar lehiakortasun-maila adierazgarria izan duten tamaina garrantzitsuko ETE-etan baizik; gainera, ETE horiek metalurgia-osagai adierazgarria badute ere, aski dibertsifikatuta daude sektorialki -kimika-industria, papergintza...

Hirugarren sektoreko enplegua, hiriguneko zerbitzu-jardueretan eta Eremu Funtzionalaren berezko zuzkidura, hezkuntza eta laguntzako ekipamenduen mailetan ez ezik, industria-lurzorua intentsiboki okupatzen ez duten baina erabilera-maila handia eskatzen duten zerbitzu-jardueren garapenean ere oinarritzen da -handizkako merkataritza, konponketak, biltegitratze-jarduera logistikoak...-.

Etorkizunari begira, hirugarren sektoreko profil honek balio erantsi handiagoko jardueretarantz garatu eta dibertsifikatzeko ahalmen nabarmena azaltzen du, Donostialdeko erdigunearekin sinergiak optimizatzeko esparruan.

Profil honen osagarri gisa, eremuak hainbat sagardo-ustiapien hartzen ditu bere esparru landatarrenean. Edarien industria-produkzioaren eta ostalaritzaren erdibidean dauden ustiapien horiek turismo-garapenaren esparruan balorizazio endogenoko ahalmen adierazgarria duten tipikotasun-elementuak dira.

- **Oria Beherea**

Industriak nagusitasun nabarmena du (soldatapeko enpleguaren % 59) azpieremu honetan. Historikoki dimentsio handiko industria enblematikoen presentzia eta horiek inguruko enpresa-ehunean izan duten efektu eragilean oinarritu da. Horietako asko, ordea, gainbeheran hasi ziren 80ko hamarkadan eta plantillak pixkanaka murriztu egin ziren eta, gainera, ez zen kanpotiko ezarpenik izan.

Hirugarren sektoreari dagokionez, sortzen dituen hirugarren sektoreko lanpostuen eta sektore horretan lan egiten duen bertako biztanleriaren artean defizit edo desoreka handiena duen azpieremua da.

Egoera honek hirugarren sektorea berronkatzeko aukera nabarmena iradokitzen du, hala hiri-ekonomiari eta bizi-kalitateari atxikitako zerbitzuak ezartzeko, nola hiriburuarekiko sinergiak sortzeko, enpresa-zerbitzuak eta, oro har, balio erantsi handia sortzen duten hirugarren sektoreko jarduerak ezarriz.

- **Andoain**

Lurraldean Oria Behereko eta Urumeako azpieremuen eta Toloserriko Eremu Funtzionalaren arteko errotula gisa kokaturik, garai batean Gipuzkoaren gainerakoranzko trantsizio ekonomikoko gune izendatu zenaren ezaugarriak irudikatzen ditu azpieremu honen profil sozioekonomikoak.

Kokapen estrategiko horek bere profilaren interpretazioa irekia eta Donostiako eta Toloserriko eremu funtzionalen arteko ingurunerantz proiektatua izatera behartzen du.

Industria argi eta garbi nagusitzen den azpieremu hau -soldatapeko enpleguaren % 65 Eremu Funtzionala osatzen duten guztietatik industria-pisurik handiena duena da. Ezaugarri partikular gisa, azpimarratzekoa da metalaz bestelako industria-jardueren nagusitasuna eta ia-ia enpresa handitzat har daitezkeen tamaina handiko ETE askoren presentzia. Dena den, azpieremua ez da soberakinduna industria-lanpostuei dagokienez.

Industria-espezializazio horren ordain gisa, hirugarren sektorean garapen txikiena duen azpieremua da, izan ere bere biztanle-dimentsioak ez baitu hiri-ekonomiaren berezko zerbitzuen garapen berezirik ahalbidetu eta, gainera, lurzoru-premia intentsiboko hirugarren sektoreko jarduerak ez dute aurrera egiterik izan. Beharbada jarduera horiek -handizkako merkataritza, konponketak, biltegiatze-jarduera logistikoak...- etorkizunean azpieremu honen produkzio-ehuna orekatzen laguntzeko hirugarren sektorearen garapenerako ildo interesgarria osa lezakete.

2.5.- UDAL PLANGINTZA OROKORRA

Donostiako Eremu Fntzionalean indarrean dagoen hiri-plangintza edo berrikuspen izapideen aldi aurreratuan daudenak, udal-antolamenduko 13 planek osatzen dute, independenteki onartuak. Gainera, ez diete beti hirigintza-irizpide bereberri jarraitu eta une kronologiko aski desberdinetan eraman dira aurrera, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

<u>Udalerria</u>	<u>Plangintza orokorreko tresna</u>	<u>Onarpen-data</u>
Andoain	HAPO	2011
Astigarraga	HAPO	2010
Donostia	HAPO	2010
Errenteria	HAPO	2004
Hernani	Arau subsidiarioak	2011
Hondarribia	HAPO (Behin behineko onarpena)	2015
Irun	HAPO	2015
Lasarte-Oria	Arau subsidiarioak	2005
Lezo	HAPO	2011
Oiartzun	HAPO	2015
Pasaia	Arau subsidiarioak	1997
Urnieta	HAPO	2013
Usurbil	Arau subsidiarioak	2011

Gaur egun Hondarribiako udalerraren plagintza orokorra berrikuspen prozesuan aurkitzen da, behin betiko onarpena izapideen egoeran dagoelarik.

Jarraian indarrean den hiri-plangintzaren eguneratutako euskarri grafiko bezala Udalplan 2015eko datuetatik abiatuz Eremu Funtzionaleko hamahiru udalerrri bakoitzaren plagintza orokorraren egoeraren errepaso sintetikoa aurkezten da, aldi berean, izapide edo lantze egoeran dauden udal plagintzen berrikuspen prozeuen berri ere ematen da:

- Andoain

Andoainen indarrean dagoen plagintza orokorra 2011an onartutako HAPO dokumentuari dagokio. Plagintzaren egoera hau 2015ko Udalplanean ikusten da.

Andoaingo HAPOaren arabera 2.068 bizitegi berrien eraikuntza aurreikusten da, 510 Bazkardon, 248 Ama Kandidan eta 478 Baltzusketan, hauek kuantitatiboki garrantzitsu diren operazio gisa, eta 45 ha-ko garapena lurzoru industrial berri gisa poligono ezberdinetan. Plan Orokorrean dagoen egitura-bide orokorrak aurreikusitako Bazkardo eta Sorabilla tarteko A-1 Autobidearen trazadura berriaren eraikuntza gehitzen du.

HAPO dokumentuaren Zonifikazio Globalaren II.4 planoa aurkezten da.

- **Astigarraga**

Astigarran indarrean dagoen plangintza orokorrari 2010an onartutako HAPO dokumentua dagokio. Ondoren gauzatutako aldaketak ez dira Lurralde Plan Partzial mailan esanguratsuak.

HAPOn 1.000 etxebizitza berri baino gehixeago eraikitzea, Ergobiko zabalgunean 400 eta 230 Mendi Aundi Anibarren eragiketa nagusi gisa eta industria-lurzoruko eremu berriak garatzea aurreikusten da, batez ere Zakurmendegi eta Ubarburun. Azpiegituren alorreko erreferentzia nagusia AHT geltokiaren proiektua da. Hori ezartzearen ondorioz, egungo Bidebitarteko industria-poligonoa etorkizunean bizitegirako birmoldatzeko aukera taxutzen da. Aldiz, AHTaren geltokia Astigarraga ondoan jartzea deuseztatu dela dirudi.

HAPO dokumentuaren Zonifikazio Orokorreko 0.4 planoa aurkezten da.

- **Donostia**

Donostiaaren indarrean dagoen plangintza orokorra 2010ean onartutako HAPOren dokumentuari eta geroztik onartutako aldaketa-espedienteei dagokie. Plangintzaren egoera hori Udalplan 2015 aplikazioan islatuta dago.

Lurzoruaren hirigintza-okupazio berrien proposamenak Antondegiko bizitegi eraiketa da 3.088 etxebizitzekin, Auditx-Akular 3.044 etxebizitzekin eta Txomin-Enea 1161 etxebizitzekin. Gainera, Eskuzaitxetan 72 Ha-ko, Landarron 15Ha-ko, Belartza 2n 22 Ha-ko eta Antondegin 22 Ha-ko jarduera ekonomikoentzako lurzoru berriak.

HAPOaren arabera, Donostian oraindik 14.045 etxebizitza eraikitzea fata da eta 128 Ha-eko lurzoruen erreserba jarduera ekonomikoentzako kalifikatuak.

HAPO dokumentuaren Zonifikazio Globaleko II.1.1 planoa aurkezten da.

- **Errenteria**

Errenterian indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 2004an onartutako HAPOren dokumentuari eta lurralde-eragin berezirik ez duten geroztik onartutako xedapen-aldaketei dagokie. Dokumentuak artean badu ibilbiderik datozen urteetan udalerriko hirigintza-garapena gauzatzeko. Errenterian indarrean dagoen plangintzaren egoera Udalplan 2015 aplikazioan islatuta dago.

2004ko HAPOaren arabera, egitear dauden bizitegi garapen nagusiak Alzate 197 etxebizitza, Gamongoa 690 etxebizitza, Perutxene/Sagasti 310, eta Zarra/Larretxipi jauregiko 200 etxebizitza dira. Guztira, HAPOaren arabera bizitegi parke gisa hazkuntza erreserbak 1.856 etxebizitzetara igo da. Jarduera ekonomikoentzako bideratutako lurzorua berriz, lohiz beteta aurkitzen da, Urkiola sektoreko garapena dezente kuestionagarria baita.

HAPO dokumentuko (2014 Otsaila) Lurzoruaren Kalifikazioa 0.III.01.I planoa aurkezten da.

- **Hernani**

Hernaniko udalerrian indarrean dagoen plangintza orokorra 2011an onartutako AA.SSei dagokio. Indarrean dagoen plangintza honen egoera Hernaniko Udalplan 2015an islatzen da.

Etorkizuneko bizitegi garapenak La Floridan, Portu-Karabelen, Santa Barbaran eta Villasen zentratzen dira, guztira 1.869 etxebizitzeko bizitegi parkearen hazkuntza. Jarduera ekonomikoentzako bideratutako lurzoru berriak Galarreta inguruan aurkitzen dira.

Egiten ari den Moldatutako Textuaren Lurzoru Orokorraren Kalifikazioa (Hiri Eremua) II.1.2. planoa aurkezten da.

- **Hondarribia**

Hondarribian indarrean dagoen udal-plangintza 1997an onartutako dokumentuari eta garrantzizko lurralde-eraginik ez duten geroztik onartutako xedapen-aldaketei dagokie. Indarrean dagoen plangintzaren egoera hori bat dator Udalplan 2015 aplikazioan irudikatutakoarekin.

Lurralde Plan Partzialean berriz, Hondarribiako plangintza orokorra berrikuspen prozesuko izapide egoeran (Hasierako Onarpena) zegoen dokumentua kontsideratu da. Garapen berri gisa planteatutako bizitegi nagusien aurreikuspenak 237 etxebizitza Karmelitetan, 377 etxebizitza Tudelenean, 245 etxebizitza Basakon espero ditu. Bizitegi parkearen aurreikusitako hazkuntza osoa 1.700 etxebizitza dira.

Jarduera ekonomikoentzako lurzoruen eskaintza gisa, Zubietako zati bat teknologia parke bezala garatzea planteatzen da.

II.1.2. planoan, zonifikazio globala agertzen da. Hondarribiko HAPOaren dokumentu berrian jasotako hiri-eremua.

- **Irun**

Irunen indarrean dagoen udal-plangintza 2015ean onartutako HAPOaren dokumentuari dagokio.

Aurrerapenean planteatutako lurralde alorreko kontu nagusien artean, honakoak aipa daitezke:

- “Hegoaldeko Ingurabidea” bidearen sorkuntza, Arretxe-Ugalden AP-8ko erdilotura batetik N-121-A-rarte.
- Irungo erdiguneko trenbide-espazioa erabat birmoldatzeko eragiketa planteatu da. Horretarako, egun dauden instalazioak egokitu egin behar dira aldiriko zerbitzuaren eskakizunetara eta trenbide-sare berria iristearen ondoriozkoetara. Horri dagokionez, Plan Orokorrak aurreikusita dauka ETS linearen egungo trazadura aldatzea, trenbide-esparruaren zati bat estaltzea eta espazio horrekiko bide-konexio berriak gauzatzea. Era berean, azpiegitura horietarako beharrezkoak ez diren lurren hiri-garapenerako liberazioa planteatzen da. Hala, lur horiek egoitzako, hirugarren sektoreko, ekipamenduko eta zuzkidurako erabileretara zuzenduko lirateke; baita garraiobide guztien arteko konexioa ahalbidetuko duen geltoki intermodal berri bat aurreikustera ere.
- Zubietan enpresa- eta kirol-parke bat eta Zaldunborda inguruan jarduera-poligono berri bat sustatzea. Bi ekimen horiek Hondarribiko udal-plangintza berrikusteko lanekin koordinatuta taxutzen dira.

Bizitegi-parkea zabaltzeko proposamenak, berrikuspenean, 7.300 bat etxebizitza berriren aurreikuspena barne hartzen du. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-okupazio berrietarako proposamenek (Sasikoburua, Zabaleta eta Ointzabaletaren luzapena) 25 ha inguru hartzen dituzte; eta horiei ia 11 ha gehitu behar zaizkie hirugarren sektoreko erabilerara zuzenduta Urdanibia-Zubieta esparruan.

Egitura Orokorren Proposamena E-2 planoan aurkezten da.

- **Lasarte-Oria**

Lasarte-Orian indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 2005ean onartutako arau subsidiarioen dokumentuari eta lurralde-eragin berezirik ez duten geroztik onartutako xedapen-aldaketei dagokie. Dokumentuak artean badu ibilbiderik datozen urteetan udalerriko hirigintza-garapena gauzatzeko. Lasarte-Orian indarrean dagoen plangintzaren egoera Udalplan 2015 aplikazioan islatuta dago.

Arau Subsidiarioetatik moldatutako Testu Dokumentuaren Zonifikazio Globala planoan aurkezten da.

- **Lezo**

Lezon indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 2011an onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrenari dagokio, Udalplan 2015an islaturik gelditzen dena.

HAPOn bizitegi mailan planteatutako aurreikusitako hiri garapen nagusienak HOE 14ko Algeposa 1 eta HOE 13ko Marrukene dira, non bizitegi parkearen 705 etxebizitza berrien hazkuntza globala planteatzen den.

Jarduera ekonomikoentzako lurzoruaren eskaintza Gaintzurizketa inguruan planteatzen da 14,1 ha-rekin.

2011an onartutako Hiri Antolamendu Plan Orokorrenaren Testu Moldatuaren Zonifikazio Globala 0.III.01.I planoan aurkezten da.

- **Oiartzun**

Oiartzunen indarrean dagoen udal-plangintza 2015ean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra da.

HAPOan bizitegi mailan planteatutako hiri garapen berri nagusien aurreikuspenak Elizalde eta Altzibarren 200 etxebizitza berri bakoitzean; eta Arraguan, 478; guztira 1.300 etxebizitza berri direlarik.

Jarduera ekonomikoentzako lurzoru berri gisa Lanbarrengainako (8 ha) poligonoa planteatzen da.

Oiartzungo Hiri Antolamendu Plan Orokorreko (2015) dokumentu berriaren E.5en Kalifikazio Globala planoa aurkezten da.

- **Pasaia**

Pasaian indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 1997an onartutako arau subsidiarioen dokumentuari eta garrantzizko lurralde-eraginik ez duten geroztik onartutako xedapen-aldaketei dagokie. Pasaiaiko Udalaren aldetik ez da hautematen, oraingoz, plangintza orokorra berrikusteko prozesu bati ekiteko beharrik, udalerriak erabat beteta baitu ia lurralde osoa. Plangintzaren egoera hori Udalplan 2015 aplikazioaren dokumentazioan islatuta dago.

Nolanahi ere, Pasaiaiko udalerraren etorkizuneko hirigintza-antolamenduari buruzko funtsezko gakoak neurri handiagoan dautza Pasaiaiko portuko barruko zerbitzugunea berantolatze berkontsiderazio prozesuan.

- **Urnieta**

Urnietan indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 2013an onartutako Hiri Antolamenduko Plan Okorrearen dokumentuari dagokio.

HAPOan bizitegi mailan planteatzen diren hiri garapen berrien aurreikuspen nagusiak H.I.E. 27ko Emotegin 134 etxebizitza berri, H.I.E. 31ko Azkararen 460 etxebizitza, H.I.E. 32ko Babilonian 340 etxebizitza eta H.I.E 33ko Trankatzen 160 etxebizitza, inguruan aurkitzen dira. Hazkuntza netoa guztira 1.094 etxebizitza dira.


Jarduera ekonomikoentzako lurzoruen eskaintza berria H.I.E 30ko Urkainen 12,4 ha-rekin eta H.I.E 28ko Miravallesen 7,8 ha-rekin kontzentratzen da.

HAPOko (2013) dokumentuaren Zonifikazio Globala II.3 planoa aurkezten da.

- **Usurbil**


Usurbilen indarrean dagoen udal-plangintza orokorra 2005ean zati batean onartu eta bertan behera utzitako arau subsidiarioen dokumentuari dagokio. Plangintzaren egoera hori Udalplan 2015 aplikazioaren dokumentazioan islatuta dago. Bertan behera utzitako zona nagusia S-10 Elor sektoreari dagokio, jarduera ekonomikoentzako lurzoru berri gisa kalifikatzen delarik.

Aurreikusitako bizitegi parkearen hazkuntza, indarrean dagoen plangintzaren arabera, 1.134 etxebizitzetan zehazten da.



Leyenda

	udal_municipios_10000 any		udal_snu_sg_10000 any
	udal_trazadotav_10000 any		udal_tramatav
	udal_toponimia_10000 any		udal_tramupu
	udal_tramapu_10000 any		udal_basi
	udal_basica_10000 any		udal_espro
	udal_condsup_10000 any		udal_trazado_tamu
	udal_equi_10000 any		udal_sn_1
	udal_espro_10000 any		udal_resi
	udal_indus_10000 any		udal_provin
	udal_libre_10000 any		udal_indu
	udal_provinciase_10000 any		udal_equi
	udal_resi_10000 any		udal_condsup
	udal_snu_snu_10000 any		udal_libre
			udal_snu_2





ANDOAIN

H.A.P.O.

II.4 PLANOA ZONAKATZE OROKORRA

TESTU BATERATUA 2011 APIRILA






DONOSTIA

H.A.P.O.


II.1.1. PLANOA ZONAKATZE OROKORRA
TESTU BATEGINA 2010 IRAILA




ERRETERIA

H.A.P.O.

0.III.01.I PLANOA LURZORUAREN KLASIFIKAZIOA
TESTU BATEGIN EGOKITUA 2004 OTSAILA



ARAU SUBSIDIARIOAK
II.1.2 PLANOA LURRAREN KALIFIKAZIO OROKORRA
BEHIN-BETIKO ONARPENA 2011 APIRILA



HONDARRIBIA


H.A.P.O.


II.1.2. PLANOA ZONAKATZE OROKORRA,
HIRI EREMUA

HASIERAKO ONARPENA 2015 MARTXOA

E-2 PLANOA PROPOSATURIKO EGITURA OROKORRA BEHIN-BETIKO ONARPENA 2015 URTARRILA

ARAU SUBSIDARIOAK
ZONIFIKAZIO OROKORRA
TESTU BATEGINA 2005 APIRILA





OIARTZUN


H.A.P.O.

E-5 PLANOAK KALIFIKAZIO OROKORRA


BEHIN-BETIKO

ONARPENA


2015



PASAIA
ARAU SUBSIDIARIOAK
1.1. PLANOA ZONAKATZE OROKORRA
TESTU BATEGINA 1998 AZAROA



H.A.P.O.
P-II-3 PLANOA ZONAKATZE OROKORRA
BEHIN-BETIKO ONARPENA 2013 URRIA



USURBIL

ARAU SUBSIDIARIOAK

03 02 PLANOA ZONAKATZE OROKORRA
BEHIN-BETIKO ONARPENA 2005 OTSAILA

2.6.- GARRAIO ETA KOMUNIKABIDE SAREA

- Errepide-sare nagusia

Eremu Funtzionalean berriki egin diren jarduketa nagusiek argi eta garbi aurrekonfiguratzeko dute Lurralde Plan Partzialean aintzat hartu beharreko mugikortasuneko bide-eredua. Hauek dira bideen alorrean egin diren eta eredu hori zehazten duten ekintzarik garrantzitsuenak:

- “Bigarren Ingurabidea”, AP-8/AP-1 autobidearen Aritzeta eta Arragua arteko saihezbidea, Donostialdeko mendebaldeko hiri-konurbazioko ekialdetik mendebalderako saihezbide berria konfiguratzeko duena.
- Hirugarren erreiak eraikitzea AP-8/AP-1 autobidean, Orio-Aritzeta eta Arragua - Irungo Benta tartean.
- A-1 autobia, garai bateko N-1 errepide nazionala, bide-ardatza hegoaldeko iparraldera konfiguratzeko duena AP-8/AP-1 autobidearekin Andoain eta Donostia artean bat egin arte. Ekialderantz jarraitzen du GI-20 errepidean barna, Donostiako saihebidetik, Pasaiaren eta Errenteriako saihebidetara arteko lotune berrietik, GI-636 errepidetik eta Gaintxurizketa gainaren eta Irungo Bentaren arteko GI-636 errepidearen bikoiztetik, Gaintxurizketa gaineko biribilgunean zehar.
- A-15 autobia, A-1 autobiatik (Andoainen) eta Bigarren ingurabidearen (AP-8/AP-1, Astigarragan) artean; lotuneak ditu Bazkardon, Leizotzen, Urnietan, Hernanin, Karabelen eta Martindegin.
- Urumeako autobia (GI-41), A-15 autobiatik Donostian sartzeko autobia gisa; lotuneak ditu Amaran, Martutenen, Astigarraga Iparraldean eta 2. ingurabidean.
- Donostiako saihezbidea (GI-20) Anoetan Ospitaleekin eta Urumeako autobidearen Martuteneko biribilgune berriarekin konektatzeko bidea (GI-40), Garbera aldean (Altza) Donostiako saihebidetara (GI-20) luzatzen dena.
- N-121A errepidearen trazadura berria Behobia (AP-8 autobidearekiko konexioa) eta Endarlatsa artean (Nafarroarekiko muga), 5,8 km-ko luzetarako garapenarekin eta sekzio aldakorrarekin, 3 erreiko tarteekin, Nafarroarekiko ahalmen handiko komunikabide berri gisa.

- Bestalde, lurralde-antolamenduan eragina duten proiektu hauek ere aipatu behar dira:
 - A-1 eta A-15 autobien arteko trazadura berria Bazkardo eta Sorabilla (Andoain) artean. A-1 eta A-15 autobien arteko Bazkardoko egungo lotunea hobetuko du, 2,8 km-ko luzetarako garapenarekin eta 300 metroko tunel batekin.
 - AP-8/AP-1 autobidearen Irungo Benta eta Behobia arteko tartea hiru erreitara zabaltzea eta erdilotune bat sortzea Irungo Lapitze-Arretxe-Ugalde aldean, Irundik AP-8/AP-1 autobidera mendebalderantz sarbide hobe ahalbidetzeko.
 - Bide berria Irunen, AP-8/AP-1 autobidearekiko paralelo, hiri-zonan trafikoa banatzeko errepide berri gisa (Irungo Hegoaldeko Ingurabidea).
 - Garai bateko N-1 errepidea (gaur egun GI-636 errepidea) Irungo Bentaren eta Oxinbiribilen artean hobetzea, Eskualdeko Ospitaleko (Zubieta) zonan eta Irungo Iparralde hiribidearekiko lotunean gauzatu diren edo gauzatzen ari diren jarduketekin. Gipuzkoako Foru Aldundia gainerako jarduketan helburuak berraztertzen ari da.

Esku-hartzeen programa hori neurri handi batean jasota dago 2010eko abenduan onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen 2. Plan Orokorra berraztertze dokumentuan.

- **Oinezkoen pasealekuen eta bidegorrien sarea**

Azken urteotan, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bai Eremu Funtzionaleko udalek bere inbertsio-ahalegin handia egin dute oinezkoen pasealekua eta bizikletaren erabilera sustatzean oinarritutako garraio-eredu berri bat bultzatzeko, bai hiri barruan eta bai hiriarteko mailan. Horretarako, ibilgailu motordunen bideetatik aski bereiz dauden eta udalerrri bereko edo hainbat udalerritako hiri-zonak lotzen dituzten oinezkoen bideen eta bidegorrien azpiegitura sortu da.

Ilido horretan, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala nabarmendu beharra dago, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin eta 2013ko ekainean behin betiko onartu zena. Plan horrek ahalegin garrantzitsua egiten du hiriarteko edo herri arteko konexioetan, baina zenbait kasutan Donostiako (Donostialdea - Bidaso Beherea) Eremu Funtzionalaren barruan ez dute lurralde-garrantzirik beste garraiobide batzuen erabilera murrizteari begira, haien zailtasunagatik eta luzeragatik. Analisi horren adibide bat izango litzateke Oiartzun eta Astigarraga arteko bidegorria, Irun eta Oiartzun artekoa edo Urnieta eta Lasarte artekoa. Baina oro har, herritarrek orokorrean erabiltzeko garraio-eredu berri iraunkorra eta erabilgarria garatzeko, distantzia laburrak eta desnibel txikiak dituzten udalerrri mugakideen arteko konexioak oso positiboak dira eta aukera eman dezakete Eremu Funtzionalako kale eta errepedeetatik igarotzen diren ibilgailu partikularren trafikoa murrizteko.

- **Trenbide-sarea**

Donostiako (Donostialdea - Bidaso Beherea) Eremu Funtzionalako trenbide-sarearen antolamendua indarrean dagoen EAEko Trenbideen Azpiegitura Antolatzeko Lurralde Arloko Planak arautzen du (41/2001 Dekretua). Plan hori berraztertzen ari dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriari (AHT) dagokionez, hauxe da egungo egoera:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren Eremu Funtzionalan zeharreko trazadura orokorra finkatuta dago funtsean; Aduna eta Astigarraga arteko bidegune guztiak eraikitzen ari dira gaur egun.
- Astigarraga-Donostia-Irun bidegunean UIC zabalerako sarrera bat egitea planteatzen da, hirugarren hari batekin. Sarrera hori Atotxako geltokitik igaroko litzateke, Donostiako erdigunean, eta Irungo geltokiraino iritsiko litzateke, Hendaiaiko Frantziarekiko konexioraino.
- ADIFek Trenbide Sare Berriaren Astigarraga eta Lezo arteko trazadurarako egindako informazio-azterketa bat dago, Donostiako Atotxako geltokian geldialdirik egingo ez duten trenen salgaienezako saihezbidea eta bidaiarientzako saihezbidea aztergai dituen. Lezo-Gaintxurizketako plataforma intermodala eraikitzeak aukera ere aintzat hartzen da azterketa horretan.

- Epe laburrerako agertokian, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria Irungo geltokitik igaroko da. Horrela, Irun parean autobidearen hegoaldeetik igarotzen den trazadura, Frantziako etorkizuneko abiadura handiko sarearekin konektatzeko, epe ertain-luzerako azpiegitura gisa besterik ez da aintzat hartzen Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria Frantziarekin konektatzeko informazio-azterketa osagarriaren arabera. Lezoko zona intermodala Frantziaranzko etorkizuneko trazadurarekin lotzea ere aintzat hartzen da azterketa horretan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren azpiegitura Astigarragaren eta Frantziarekiko mugaren artean eraikitzeako proiektuak informazio-azterketaren fasean daude. Haien garapenaren ondorioz, litekeena da eskakizun teknikoengatik trazadura oraindik zehaztu gabeko puntu zehatzetan aldatu behar izatea.

Iberiar zabalerako ADIF sareari dagokionez, egungo egoera honakoa da:

- Aztertzen ari dira Loiolako Erriberan (ETSrekiko aldageltokia) eta Arraguan (Oiartzun) geltoki berriak ezartzeko proiektuak.
- Atotxako geltokiko zona berrantolatzeko azterlana, Donostiako Udalarekin lankidetzan. Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren adarraren helduera eta Tabakalerako eta autobus-geltokiko eragiketak aintzat hartzen ditu.
- Irungo geltokiko zona osorik berrantolatzeko azterlana, Irungo Udalarekin lankidetzan. Trenbide-instalazioen berrantolamendua, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren helduera eta inguruan egin litezkeen hiri-birmoldaketako eragiketak aintzat hartzen ditu.

ETSri dagokionez, finkatuta dauden esku-hartzeak eta proiektuak honakoak dira:

- Duela gutxi gauzatutako proiektuak:
 - Añorga-Rekalde tartea bikoiztea. Proiektu horretan Añorga auzoa trenbide-atxikipenetik libre utzi da eta Cementos Rezola enpresaren instalazioetarako sarbide bat ezartzeko aukera aurreikusi da, eta, orobat, txirrindulari eta oinezkoentzat bide berri bat prestatu da trenbidearen plataforma zaharretik. Proiektua gauzatuta dago.

- Fanderia-Oiartzun tartea bikoiztea. Tarte horretan, Fanderian geltoki berri bat egitea eta Oiartzun-Arraguako geltokia modernizatzea aintzat hartzen da; biaduktu-tarte bat antolatuko da hiri-iragazkortasuna ahalbidetzeko. Proiektua gauzatuta dago.
 - Loiola-Herrera tartea bikoiztea. Tarte horretan 2,2 km-ko luzetarako garapena duen bide bikoitzeko tunel berri bat eraiki da, Intxaurren auzorako lurpeko geltoki berri bat egin da eta Herrerako geltokia berritu da. Proiektua gauzatuta dago.
 - Araso inguruan, Irunen, trenbide-zerbitzu teknikorako plataforma bat (kotxetegiak, lantegiak eta abar) ezartzeko jarduketa bat gauzatu da.
- Gauzatzen ari diren proiektu gisa taxutzen dira:
- Altzan geltoki berri bat gauzatzea, Herrerako geltokitik sarbidea izango duena, etorkizunean Pasai Antxorainoko trazadura berriarekin bat etorriko dena. Proiektua gauzatzen ari da.
 - ETSren linea Donostia erdialdean, Amara eta Lugaritz artean metro tipologiarekin luzatzeko aukera analizatzeko informazio-azterketa. Aukera horretan, geltoki berriak ezarriko lirateke Erdialdea-Kontxan eta Benta Berri - Unibertsitateetan.
 - Aginagako tuneleko tartea bikoiztea.

Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoa, era berean, Estatuaren proiektu estrategiko bat da, Estatuaren bi plangintza-dokumentutan jasotakoa: Garraio Azpiegituren Plan Estrategikoa (GAPE) eta Garraio eta Etxebizitza Azpiegituren Plana (GEAP).

- **Pasaia portua**

Pasaia portua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Estatuaren interes orokorreko portua da. Portu naturala da, Kantauri itsasoko uhinetatik babestua eta kanal natural baten bidez harekin lotutakoa. Portuko trafikoari dagokionez, % 50 baino zertxobait gehiago txatar metalikoaz osatuta dago. Lehengai hori Gipuzkoako industria siderurgikoan erabiltzen da. Industria horrek berak portua baliatzen du bere produkzioari irteera emateko. Pasaia portuak, era berean, garrantzi handia du ibilgailuen garraioan. Herrialdearen barrualdean dauden automobil-industriek (esaterako, Gasteizko Mercedes, Iruñeko Volkswagen edo Figueruelasko Opel) Pasaia portua baliatzen dute beren produkzioaren zati bati irteera emateko. Gainera, ibilgailuak inportatzeko ere erabiltzen da portua. Xede horretarako, ibilgailuak biltegitatu eta kargatzeko bereziki egokitutako instalazioak daude.

Hiri-ingurunean kokatutako portua da, portua zabaltzen deneko hiriguneetako (Pasaia, Errearteria, Lezo eta Donostia) azpiegituren garapena eta haien hazkundea direla-eta. Horrek berekin ekarri du Pasaia badiaren konurbazio-prozesu bat, hiri-jarraitu bat sorrarazi duena Donostia, Pasaia, Errearteria eta Lezo artean eta portua erdigunean utzi duena. Hala, Pasaia portua azpiegiturek eta hirigintzak hertsatzen du, eta hedatzeko aukerarik gabe uzten ditu bai hirigintza, bai portua. Hortaz, urbazterreko udalerriek portu-espazio narriatuei edo gutxiegi erabilitakoei birkualifikazio baten eta portu-hiri erlazio hobea baten xede izan daitezkeen espaziotzat begiratzen diete.

Portuko Agintaritzak onartutako Pasaia Portuko 2009-2020 Plan Estrategikoan kanpoaldeko dartsena bat aurreikusita bazegoen ere (Gipuzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa azpiegitura logistiko eta intermodal lehiakorraz hornitzeko eta Pasaia badiaren erabat leheneratzen laguntzeko asmoz), 2014ko irailean, Administrazio Kontseiluaren erabakiz, Pasaia Portuko Agintaritzak utzi egin zion kanpoaldeko portuaren proiektua bideratzeari, portua Pasaia badiaren kanpoaldera lekualdatzeari uko egin gabe, inguruabar egokia suertatzen denean. Uko-egite horren arrazoiak, funtsean, honako hauek izan ziren: benetako trafiko-zifrak, zentral termikoa ixtea eta proiektuaren bideraezintasun ekonomikoa eta finantzarioa, Portuko Agintaritzak 2014an gidatutako etorkizunerako gogoeta-prozesuaren ondorioekin batera. Horretan, Pasaia Portuaren aukera estrategikoa zehaztu zen 2025. urteari begira, Gipuzkoako enpresen zerbitzurako hiri-portu gisa, hiru helburu hauekin:

- (1) Espazioa optimizatzea eta portu-hiri ertzaren arazoari konponbidea ematea.
- (2) Ingurumen-kudeaketatik, Pasaia ereduzko hiri-portu bihurtzea.
- (3) Arrantzako eta ontzigintzako jarduerak finkatzea.

2015eko martxoan, Pasaia Portuko Agintaritzak bere 2015-2025 plan estrategikoa onartu zuen, badiaren barruan portu-jarduera finkatu eta haztera bideratuta, haren hiri-ingurunearekin eta ingurumen-bikaintasunarekin bateragarritasun-baldintzetan. Bertako trafikoak dibertsifikatzeko eta zerbitzu erregular berriak ezartzeko aupada planteatu zitzaion, bere Hinterland-eko enpresa kopuru handiago baten merkataritza-mugimenduen sarrera eta irteerako bide bihurtu ahal izateko.

Zehazki, Pasaia Portuko 2015-2025 Plan Estrategikoaren eginkizuna da, portu hiritar eta iraunkor baten testuinguruan, eragile garrantzitsua izatea Iberiar penintsularen eta Frantziako hegoaldearen eta Britainiar uharteen eta Europa iparraldearen arteko konexio intermodaletan, bere inguruko hinterlandari egiten dion zerbitzua mantendu eta hobetuta. Planaren helburua da erreferentziazko portua izatea Iberiar penintsulako eta Frantzia hegoaldeko enpresentzat, bezeroarekiko orientazioagatik eta bere zerbitzuen malgutasunagatik. Hori dela-eta, Portuko Agintaritzaren estrategia orokorra honetan oinarrituko da:

- (1) Merkataritza-estrategia proaktiboa garatzea trafiko garbiak eta balio erantsiko portu-zerbitzu logistikoak erakartzeko.
- (2) Portuan (portu-esparruetan) jarduerak berrantolatzea hirian ahalik eta inpaktu txikiena lortzeko.
- (3) Hiri-ingurunearekiko harremanetan ahalik eta harmonia handiena sustatzea.

2015eko irailean, Portuko Agintaritzak bere zerbitzu-esparrua antolatzeko plan bereziaren berrikuspen bat aurkeztu du. Horretan, Herrera eremurako soluzio bat jasotzen da, hiri-transformazioaren eta portua eraberritzearen arteko orekari lehentasuna ematen diona.

- **Hondarribiko aireportua**

Era askotako aukerak kontuan hartu ondoren, 2009ko urrian adostasuna lortu zuten Sustapen Ministerioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako, Hondarribiko eta Irungo udalek Aenaren Plangintza eta Azpiegitura Zuzendaritzak landutako azken proiektuaren inguruan. Horri esker, egungo aireportua segurtasun-arau berrietara egokitu ahal izan da, eta, horren ondorioz, ez dago aireportua handitu beharrik.

2.7.- **AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA OSOAN BERRANTOLATZEKO PROZESUAK**

- Pasaiaiko Badiako azpiegiturak hobetzeko eta hirigintza lehengoratzeko prozesua.
- Pasaiaiko portu-barrutia berrantolatzeke prozesua.

Gai hauek batera eta integratuta kontuan hartu behar dira, begien bistakoa baita horien analisisan eta, hala badagokio, plangintzan, era guztietako interkonexio nabarmenak daudela.

Horiei gai osagarri gisa gehitu behar zaie, halaber, Lezo-Gaintxurizketa korridorearen lurralde-antolamendua, multzo hartan integratua, ezinbesteko esparrua baita Porturako sarbide-sistema berrantolatzeke eta horri sostengu logistikoa emateko plataforma berriak sortzeke.

Gai horiei dagokienez, plan hauek aipa daitezke:

- **Pasaiaiko portu-espazioak erabiltzeke plana –PUEP– (2006)**

Sustapen Ministerioaren uztailaren 19ko FOM/2416/2006 Aginduaren bidez onartua (176. BOE, 2006-07-25ekoa).

Portu-erabilera garatzeko behar diren lehorreke eta uretako espazioak mugatzea (“portuko zerbitzugunea”) eta gune horretan garatzen diren erabilerak arautzea du xede.

Erabilera-erregimena portu-esparruaren zonifikazio orokorraren bitartez arautzen da, zona bakoitzari dagozkion jarduketa-irizpideak definituta. Irizpide horiek erabili dira, hain zuzen ere, Zerbitzugunea Antolatzeke Plan Berezia idazteke oinarri gisa.

“Pasaiaiko Portuko portu-espazio eta -erabileren mugaketaren funtsezke aldaketa puntuala” izapidetzen ari dira gaur egun. Jendaurreke informaziorako espedientea hasteko dokumentazioa besterik ez da idatzi (2014-04-16ko BOE). Funtsean, zentral termikoaren zona portuko merkataritza-zona bihurtzea planteatzen du.

Portuko 2015-2025 Plan Estrategiko berria onartzearen ondorioz, 2015eko martxoan, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak onartu egin zituen portuko espazio eta erabileren mugaketa aldatzeke irizpide eta helburuak.

- **Pasaiaiko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeke Plan Berezia.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010eko abenduaren 21ean behin betiko onartua.

Dokumentuaren testuategina da, Estatuko Portuak erakundeak 2010-08-30ean jaulkitako txostenera egokitua (Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010-10-21ean behin betiko onartua).

Portuko 2015-2025 Plan Estrategiko berria onartzearen ondorioz, 2015eko martxoan, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak onartu egin zituen portuko Pasaiaiko Portuko zerbitzu-esparrua antolatzeke plan berezia aldatzeke irizpide eta helburuak.

Pasaiaiko porturen zerbitzu-esparrua antolatzeke plan berezia berrikusteko proposamena Pasaiaiko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak aurkeztu zuen 2015eko irailean, bideratu eta ondoren onartzeke. Plan bereziaren berrikusketa hau 2016ko apirilaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundiak hasiera batean onartua izan da.

Plan bereziaren aldaketa horrek helburu orokor hauek ditu:

- (1) Hiri-eremuaren paseagarritasuna, irisgarritasuna eta kohesioa hobetzea.
- (2) Porturako sarbidean oinezkoen trafikoaren eta portukoaren arteko gurutzaguneei irtenbidea ematea.
- (3) Portua beharrezko instalazioez hornitzea trafikoei lehiakortasun- eta iraunkortasun-baldintzetan erantzuteke.
- (4) Portu-espazioak antolatze horiei etekin egokia ateratzeko eta malgutasuna hobetzeko, ingurumen-aldagai kontuan izanda.
- (5) Portu-hiri topagunea ebaztea, erabilera publikoko espazioak eta hirugarren sektoreke erabilera eta zuzkiduretarako partzelak sortuta.
- (6) Ertzeke ibilbideen eraikuntza erraztea, oinezko eta bizikleten ibilbide perimetrala osatzen lagunduta.

- Irun erdialdeko trenbide-zonako azpiegiturak eta hirigintza osoan berrantolatzeko prozesua

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria etorkizunean Irunen sartzeko proiektuaren eta udalerriaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berraztertzeke proiektuaren esparruan, erakunde arteko kontsulta-prozesua hasi da Sustapen Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Irungo Udalaren artean, izaera estrategikoa duen esparru hori osoan berrantolatzeko.



2.8.- LURRALDE PLAN PARTZIALA ETA ORDENAMENDU JURIDIKOAN



Donostiako (Donostialdea - Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren proposamen-edukiak eta eduki arauemaileak indarrean dagoen ordenamendu juridikoa erabat errespetatuta aurkeztu dira.

Zehazki, besteak beste, errespetatu egiten dira Kostaldearen Legean ezarritako mugapenak itsaso eta lehorren arteko jabari publikoari eta horren babes-zortasunari dagozkien lurren gainean. Bete egiten dira horretarako berariaz Kostaldeko eta Itsasoko Iraunkortasuneko Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena. Horren garapen xehatua Lurralde Plan Partzialaren 5. artikuluan jasotzen da.

Modu osagarrian, 4. planoan (Uraren ziklo integrala eta zerbitzu-azpiegiturak) eta 6. planoan (Etxebizitza-parkearen eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolamendua), itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren eta horren babes-zortasunaren mugaketa-lerroak grafiatzen dira.

Era berean, Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari dagokionez, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren errekerimenduari erantzuteko, Lurralde Plan Partzialaren Araudiko 4. artikuluan, eskakizun horien garapen xehatua gehitu da. Artikulu horretan, adierazitako txostenean jasotako eragin akustikoei eta zortasun aeronautikoei buruzko dokumentazio grafikoa barne hartzen da. Zehazki, nabarmendu beharra dago Aireportu Sistema Orokorrari buruzko aipamena. Horrek eragina du aireportuaren beraren gainean eta Higerren (Hondarribia) dagoen NDB (NDB/DME-HIG) irrati-faro ez-direkzionalari lotutako DME distantzia-neurgailuaren gainean.





2.9.- LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANAK ETA AZTERLANAK

2003-2016 aldian, aurretik adierazi ditugun udal-plangintza berrikusteko prozesuez (2.5 epigrafean) eta komunikabide-sareari eta oinarritzko azpiegiturei buruzko (2.6 epigrafean) eta uholde prebentzioari buruzko plangintza berriez gain (2.10 epigrafean), honako berrikuntza hauek izan dira lurralde-eragina duten arloko plan eta azterlanak egiteari eta/edo izapidetzeari dagokionez:

- Behin betiko onarpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari buruzko uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren eta 231/2012 Dekretuaren bitartez onartutako haren aldaketaren bidez.
- EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Arloko Planaren behin betiko onarpena (abenduaren 21eko 262/2004 Dekretua).
- Behin betiko onarpena, 2016ko urtarrilean, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako Zatiaren Plan Hidrologikoa.
- Behin betiko onarpena, abenduaren 22ko 415/98 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari buruzko azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bitartez aldatutakoa).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basoak eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurralde Arloko Planaren behin betiko onarpena irailaren 16ko 117/2014 Dekretuaren bitartez.
- Behin betiko onarpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planari buruzko martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez.
- Aurrerapen-dokumentu berria, 2007ko uztailakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioaren Sare Intermodala eta Logistikoa Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarena.
- Behin betiko onarpena, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planarena, uztailaren 21eko 024/2009 Foru Dekretuaren bidez.

- Behin betiko onarpena, Gipuzkoako Bizikleta Bideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarena, 2013ko ekainaren 10eko Foru Arauaren bidez.
- Behin-behineko onarpena, Etxebizitza Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012.06.11ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketarena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan trenbideak antolatzeari dagokionez.

Lurralde arloko plan horiez gain, administrazio-izapide ofizialik egin ez zaien beste lurralde-azterlan batzuk ere egin dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza. 2005
- Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza. 2005
- Urumearen eta Oria Beherearen arroen arteko lurralde-artikulazioko antolamendu estrategikoko proiektu integrala (AEPI). Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. 2006.
- Jaizkibelpe esparruaren lurralde-antolamendua bideratzeko eskema. Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia. 2006.

2.10.- EREMU FUNTZIONALAREN EGOERA UHOLDEEN AURREAN

Donostiako (Donostialdea-Bidaso Beherea) Eremu Funtzionala lau ibai garrantzitsuk zeharkatzen dute: Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria ibaiek. Lurralde konfigurazio natural horren ondorioz, ibaien ertzean kokatutako egungo hiri-kokaguneei uholde-arriskua dute.

Uholde-arriskuari buruzko Europako egungo Zuzentaraua ezarri izanak, alor horretako araudi sektorialekin batera –Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoan eta EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurralde Arloko Planaren aldaketan jasoak, 2013an onartuak biak–, oso garrantzi handiko lurralde-inplikazioa dute eta, horrenbestez, ezinbestekoa da Lurralde Plan Partzialaren dokumentu honetan kontuan izatea.

Illo horretan, Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu (ARPSI) hauek definitu dira Donostiako (Donostialdea - Bidaso Beherea) Eremu Funtzionalan lehen kontsiderazio batean:

- Oria ibaia Andoainen
- Oria ibaia Lasarten
- Oria ibaia Usurbilen
- Añorga erreka Igaran, Benta Berrin eta Ondarretan
- Urumea ibaia Landarbasoren (Hernani) eta Loiolako Lorategi Hiriaren (Donostia) artean
- Oiartzun ibaia eta Karrika erreka Altzibar auzoan
- Oiartzun ibaia eta Lintzirin erreka Arragua eta Larzabal inguruan Oiartzunen eta Errenterian
- Bidasoa ibaia Behobiatik Amuteraino, Artia, Dunboa eta Jaitzubia errekek barne, Irunen eta Hondarribian

Ibai-jatorriko ur-goraldiekin lotutako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu horiez gain, kostaldeko urekin lotutako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu berriak ere definitu dira. Itsas jatorriko Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu berri horiek honako hauek dira:

- Donostia-Kosta, Donostiako hiru hondartzak eta Urumea ibaiaren bokalea hartzen dituenak.

- Urumea-2, Urumearen behealdeko uholdearekin, batez ere Txomin aldean. Ibai-jatorriko fenomenoen ondoriozko Urumeako Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuarekin gainjartzen da.
- Irun-Hondarribia, uholdeekin Txingudi aldean, Jaitzubiko errekan eta Artia errekaen Irungo zonetan. Ibai-jatorriko fenomenoen ondoriozko Bidasoko Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuarekin gainjartzen da.

Bestalde, lurralde-inplikazioa kontuan harturik, ezinbestekoa da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrologikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Arloko Planeari finkatutako araudia aipatzea. Ildo horretan, behar-beharrezkoa da 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiekin lotutako uholde-orbanak, gertatzeko probabilitate handia, ertaina eta txikia, hurrenez hurren, eta lehentasunezko fluxu-eremua ezagutzea, zeren araudi sektorial horren arabera, urpean gera daitekeen zona bakoitzak eta lehentasunezko fluxu-eremuak inplikazio zehatza baitu. Datu horiek Uraren Euskal Agentziaren (URA) webgunean argitaratuta daude. Informazio hori etengabe eguneratzen da hobetzeko jarduketak eta husteko ahalmena handitzekoak egin ahala eta ibai zein itsas jatorriko Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuak mugatzen direnean.

2.11.- GINARRIZKO BESTE AZPIEGITURA BATZUK

- Ur-hornidurako ginarrizko azpiegitura

Uraren zikloa hiru erakunde publikok ustiatzen dute Eremu Funtzionalean, kasuan kasuko zonaren arabera. Hala, Txingudiko Zerbitzuak erakundea arduratzen da Irungo eta Hondarribiko udalerrietako horniduraz eta saneamenduaz. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa arduratzen da gai honetaz Andoainen, Ibiur sistematik (Tolosaldea) hornitzen baita eta saneamendua Adunako araztegian (Tolosaldea) arazten baita. Eremu Funtzionaleko gainerako udalerriek Añarbeko Uren Mankomunitatea osatzen dute.

Ur-hornidurako ginarrizko azpiegitura amaituta dago Ibiur sistema (Andoain) eta Jaizkibelgo putzuetako harguneak zerbitzuan jarri ondoren. Hargune horiek Bidaso Behereko hornidura ziurtatzen dute iragar daitekeen edozein lehortebaldintzatan.

Dena den, duela gutxi egin diren hornidura-sistemen kalteberatasunari buruzko azterketen arabera, behar-beharrezkoa da 300.000 biztanle baino gehiago urez hornitzen dituen Añarbe sistemaren egoera hobetzea. Hori dela-eta, Añarbeko Uren Mankomunitateak Ura Urumeatik Petritegiko Edateko Uren Araztegraino Ponpatzeko Proiektua idatzi du, hornidura orokorreko elementu berri gisa, Añarbeko Kanalaren egungo eroanbidearen osagarria.

Proiektu hori egitea interes orokorreko izaera estrategikoko esku-hartzetzat jotzen da.

Bestalde, Eremu Funtzionalean uraren kontsumoak azken urteetan izan duen portaera aipatu beharra dago. Izan ere, udalek, sistemak ustiatzen dituzten erakundeek eta biztanleek oro har egin duten kontzientziazte-lan garrantzitsuari esker, azken 10-15 urteetan, kontsumitutako urteko ur-bolumena nabarmen jaitsi da, eta horrek aukera ematen du baliabide berarekin horniduraren bermea handitzeko.

- Oinarrizko saneamendu-azpiegitura

Hornidura bezalaxe, Eremu Funtzionaleko saneamendu-eskema bukatzen ari da, Atalerrekako (Txingudi), Loiolako (Añarbeko Urak) eta Adunako (Tolosaldea-Andoain) hondakin-uren araztegiak zerbitzuan jarrita. Dударik gabe, hondakin-uren araztegiak abian jarri izanak drastikoki murriztu du itsasora edo ibaietara isuritako kutsadura, baina programatuta edo proiektatuta dauden hodi biltzaile batzuk gauzatzea falta da. Besteak beste, Andoaingo Ziako errekan jardun beharra dago, Usurbilgo Aginaga eta Txokoalde auzoetako saneamendua egin behar da, eta Lasarte-Usurbil hodi biltzailea amaitu behar da eta Urumea ibaiaren hodi biltzailearekin konektatu Hernanin. Obra hori egiteko epea 2015eko udaberrian amaituko da, besteak beste.

Bestalde, egungo araudi sektorialeiei jarraiki, gainezkatzeen kontrol hobea ezarri beharko da saneamendu-sistema bateratuetan, euriteetan isuritako kutsadura murrizteko. Gainezkatzeen kontrolaren hobekuntza horren irispidea aldeztu aurretik garatu behar da saneamendu-planen edo arroko plan hidrologikoen mailan. Dena den, dokumentu honi dagokionez, hobekuntza horien lurralde-irispidea oso urria izango da.

- Hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak

2009ko uztailan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurralde Arloko Plana onartzen denean, San Markoko zaborteia behin betiko ixten da eta Donostiako (Donostialdea - Bidaso Beherea) Eremu Funtzionalean aurreikusitako azpiegitura berriak ezartzen dira:

- Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko zentroa Artzabalean. Zubietako goialdeak. Donostia.
- Transferentzia-estazioa eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen instalazioa Arizmendiko esparruan. Donostia.
- Urnietako ontziak bereizteko instalazioa.

- Gas naturalaren azpiegiturak

Eremu Funtzionalean badago gasa banatzeko eta garraiatzeko sare nagusia. Eremu Funtzionala mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen eta Frantziarekin konektatzen den goi-presioko (72 bar) gasbideen lineak eta erregulazio- eta neurketa-estazioetarainoko goi-presioko (16 bar) banaketa-gasbideen adarrek osatzen dute.

- Energia elektrikoa garraiatzeko azpiegiturak

Gaur egun, Pasaiaiko Zentral Termikoa erabat geldiarazi ondoren, ez dago energia elektrikoa sortzeko instalazio adierazgarri bakar bat ere Eremu Funtzionalean.

Energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko sareari dagokionez, Eremu Funtzionala Frantziaranzko igarobide moduko lurraldea denez, bere hornidura-sarea izateaz gain, Frantziarekin konektatzeko aireko bi linea garrantzitsu ere baditu, 380 kV-ekoa eta 220 kV-ekoa.

Linea horiek hirigintza-garapena duten Eremu Funtzionaleko esparruen gainean duten eraginaren punturik esanguratsuena 220 kV-eko lineak zeharkatzen duena da, oso antropizatuta dagoen Oiartzungo haranaren erditik igarotzen baita.

3. GAURKOTUTAKO DIAGNOSTIKOA

3.1.- 2003-2010 ALDIA BALORATZEKO ANALISIA

2003-03-13an Donostiako (Donostialdea-Bidaso Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Aurrerapeneko dokumentua ofizialki aurkeztu zuten jendaurrean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentuak.

Jendaurreko erakustaldiak iraun zuen bitartean, 2003ko maiatzean eta ekainean, 39 iradokizun-idazki jaso zituzten guztira Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian.

2003ko erdialdeaz geroztik Lurralde Plan Partzialaren dokumentua izapidetzeko prozesua mantsotu egin zen 2008. urtea arte.

Dena den, Aurrerapenaren edukiak eta hari aurkeztutako iradokizunen idazkiak aztertu ondoren atera daitekeen lehen balorazio-ondorioa da 2003-2008 aldian, jarduera ekonomiko handiko aldi hartan, ez zela Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenaren oinarritzko planteamenduak baliorik gabe utziko zituen funtsezko aldaketarik izan. Aitzitik, aldi horretan egin ziren azpiegituren alorreko esku-hartzeek eta hirigintza-garapenek berretsi egin zuten aurrerapenean planteatutako antolamendu-eredu orokorraren argudio-oinarrien egokitasuna.

2003-2008 aldian, alabaina, Lurralde Plan Partzialari eragin zioten lege-aldaketa garrantzitsuak izan ziren.

Ingurumen-legeriaren esparruan, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen zuen 183/2003 Dekretua onartu zen. Geroztik, plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Estatu Legea onartu zen. Ingurumen-legeriaren aldaketa horiek kontuan harturik, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterlana (IIBE azterlana) gehitu zitzaion Lurralde Plan Partzialari.

Legerian izan zen beste aldaketa garrantzitsu bat Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen onarpena izan zen. Legeria berrian garapen iraunkorreko irizpideak sartu ziren, lurzoru urbanizagarriaren dentsifikazio-baremo berrietan gauzatzen direnak eta Lurralde Plan Partzialean bizitegi-zonetan zein industria-zonetan dentsitate txikiko tipologiai dituzten hirigintza-kokaguneetarako jasotako antolamendu-eredua ezabatzeko eskakizuna dakartenak. Halaber, legeria berrian onartzen da bizitegi-garapen berrietan aurreikusi beharreko etxebizitza babestuen ehuneko minimoak handitzea, hala hiri-lurzorurako (% 40) nola lurzoru urbanizagarriarako (% 75).

2003-2008 aldian, halaber, gogoeta-prozesu bat izan zen ibarretako lurzoru urperagarriak erabiltzeko eta okupatzeko irizpideen inguruan. Horretarako, ibai-korridore gisa definitu diren esparruen babes berezia ezarri da Lurralde Plan Partzialean.

Halaber, 2003-2008 aldian zehar erabaki garrantzitsu asko hartu ziren eta hainbat proiektu komunikabide-sare orokorra egituratzen duten hainbat elementuri buruz. Horri esker, Lurralde Plan finkatu ziren Partzialean aintzat hartu beharreko hautabidezko aukerei buruzko ezezagun batzuk eguneratu eta askatu ahal izan dira 2010. urtetik aurrera.

2008. urtean Lurralde Plan Partziala izapidetzeko prozesuari berriro ekin zitzaionean, 2003ko Aurrerapeneko iradokizunak berrantolatu egin ziren eta, aztertu ondoren, honako ondorio nagusi hauek atera ziren:

- Oro har, Lurralde Plan Partzialaren dokumentuan landa-lurzorua edo plangintzan urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoru arautzearen problematika neurri handiagoan kontuan hartu beharra antzematen da, nekazaritzako eta abeltzaintzako lehen sektoreko jardueraren euskarria baita. Ildo horretan, Lurralde Plan Partzialaren sektore estrategiko horri zuzendutako lurraldea antolatzeko berariazko neurriak ezartzeko aukera iradoki da.

Komenigarria izango da, halaber, Lurralde Plan Partzialean hiri inguruko parkeei esleitutako helburuak eta arautzea berrikustea. Izan ere, figura hori ongi onartzen da orokorrean, baina lehen sektoreko jarduerak finkatzeko erreserba-esparruak sortzeko formula gisa erabiltzeko aukera berraztertu beharko da.

- Halaber, erabateko iritzi-adostasuna antzematen da dentsitate txikiko hirigintza-kokagune berrien ezarpena murrizteko lurralde-aukeraren inguruan, dela bizitegi-erabilerarako dela jarduera ekonomikoetarako edo bestelako zuzkidura-erabileretarako.

Garapen iraunkorra ahalbidetzearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen hirigintza-estandarrei buruzko xedapenekin bat etorriz, Lurralde Plan Partzialean orientazio berri hori aintzat hartu beharko da lurzoruaren hirigintza-okupazioko etorkizuneko agertokiak taxutzerakoan.

- Eztabaidagarriagoak dira Lurralde Plan Partzialaren aurrerapeneko eskema prospektiboei buruzko balorazioak, komunikabide- eta garraio-sareetarako eta etorkizuneko hirigintza-garapenetarako epe ertain eta luzerako agertokiak kontuan hartzeari dagozkionak.

Instantzia batzuetatik gehiegizkotzat jotzen dute Lurralde Plan Partzialaren aurrerapenean aintzat hartzen den hirigintza eta azpiegitura alorreko desarrollismoa, landa-lurzoruaren kalterako ondorio negatiboak dituen, zaindu behar den ondasun urria baita. Beste instantzia batzuetatik, ordea, azpiegitura eta zerbitzu berriak eskatzen dituzte, edo aurreikuspen handiagoak iradokitzen dituzte etorkizuneko hirigintza-garapenen dimentsionamendurako. Zehazki, Lurralde Plan Partzialak Eremu Funtzionaleko udalerrietako etorkizuneko bizitegi-garapenaren ahalmena eta jarduera ekonomikoetarako lurzoria dimentsionatzearen gaian bereziki, batzuen eta besteen jarrerak nabarmenki kontrajarriak dira.

- Azkenik, azpiegituren proiektu handiak (AHT, 2. ingurabidea, Pasaiaiko portuaren kanpoaldeko dartsena, aireportua, hondakinen tratamendua, eta abar) berariaz kontuan hartzeari dagokionez, alegazio-idazkietan jarrera sorta zabala islatzen da. Batzuk era guztietako azpiegitura-garapen berrien aurka daude eta beste muturrean, aitzitik, izendatuki eskatzen dute Lurralde Plan Partzialak aldeko jarrera hartzea oraindik ere administrazio-instantzia eskudunek erabaki gabe dituzten gorabehera handiko azpiegitura-proiektuei buruz.

2008 eta 2010 artean, formalki 2008an onartu ziren irizpide eta helburu orokor horiek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak –honek ñabardura batzuekin– 2010ean hasierako onarpena eman zioten Lurralde Plan Partzialaren dokumentua landu zen. Ondoren dokumentuaren jendaurreko erakustaldia egin zen.

2010. urtean sumatzen hasia zen, bestalde, 2.4. epigrafean aipatu den ziklo ekonomikoaren aldaketa bortizki sartzen ari zela Euskal Autonomia Erkidegoan.

3.2.- 2010ean HASIERAN ONARTUTAKO LURRALDE PLAN PARTZIALAREN DOKUMENTUA JENDAURREAN EZAGUTZERA EMATEKO PROZESUA ETA IRADOKIZUNEN IDAZKIEN EDUKI NAGUSIEN EBALUAZIO GLOBALA

2010ean Lurralde Plan Partzialari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurreko erakustaldia eta administrazio interesdunei entzutekoa ireki zen, 2011ko urtarrilaren 20an amaitu zena. Jendaurrean erakusteko prozesuaren emaitza gisa, 90 alegazio-idazki jaso ziren guztira.

2011ko maiatzean “Alegazioen Edukien Analisia” izeneko dokumentua landu zen. Dokumentu horretan lehen ebaluazio bat egin zen jendaurrean erakusteko prozesuaren ondorioz Lurralde Plan Partzialari planteatutako gaien inguruan.

3.3.- 2011-2016 ALDIA. LURRALDE PLAN PARTZIALA IZAPIDETZEKO PROZESUAK AURRERA JARRAITZEKO BALORAZIO ANALISIA, DIAGNOSTIKO EGUNERATUA ETA IRIZPIDE ESPEZIFIKO BERRIAK

2010eko uztailen, Eusko Jaurlaritzak hasierako onarpena eman zion Donostiako (Donostialdea - Bidaso Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari, eta 2010eko abuztuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen, halaber, onarpen horrekin bat egitea, ñabardura batzuk eginda.

Lurralde Plan Partzialari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurreko erakustaldia eta administrazio interesdunei entzutekoa ireki zen, hainbat luzapenen ondoren, 2011ko urtarrilean amaitu zena.

Alegazioen edukiak analizatzeko eta Lurralde Plan Partzialari planteatutako gai eta aukeren multzoa ebaluatzeko prozesuaren aldi berean, aurreko epigrafean azaldu den moduan, udal- eta foru-hauteskundeak izan ziren 2011ko maiatzean. Hauteskunde horien ondorioz, arduradun politikoen aldaketak izan ziren bai Gipuzkoako Foru Aldundian eta bai zenbait udaletan eta Eremu Funtzionaleko beste administrazio-estamentu batzuetan.

Egoera horren ondorioz, Lurralde Plan Partzialak sustatzen duten administrazioek teknikoki eta politikoki berraztertu dituzte planean bildutako lurraldea antolatzeke proposamenak.

Horretarako, Lurralde Plan Partzialaren dokumentuari gehitu beharreko lurraldea antolatzeke irizpide berriak adierazi behar dira eta Lurralde Plan Partzialaren dokumentu Aldatua landu behar da, berriz ere hasierako onarpeneko izapiderearen mende jartzeko eta horren ondoriozko jendaurreko erakustaldia egiteko.

Testuinguru horretan, 2013. urtetik aurrera baliabide tekniko eta politikoen prozesu bat aktibatu da Lurralde Plan Partziala sustatzen duten administrazioen artean. Prozesu horretan, aurkeztutako alegazio guztiak aztertu dira.

Lurralde Plan Partzialari hasierako onarpena emateko dokumentuari 2011n aurkeztutako alegazioen edukiak analizatzeko prozesuaren emaitza gisa, lurralde-antolamenduan eragina duten alderdi tematiko eta sektorialeko buruzko informazio eguneratutik, zenbait irizpide berri berraztertu eta adierazi dira Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Planaren aldatutako dokumentu bat berriz ere lantzeko.

Abiapuntu gisa ezartzen da dokumentu berria aurrekoaren dokumentu aldatu edo erreformatu gisa konfiguratuko dela eta berriz ere hasierako onarpeneko izapiderearen mende jarriko dela eta horren ondoriozko jendaurreko erakustaldia egingo dela.

Ondoren zehatz-mehatz adieraziko dira Lurralde Plan Partzialaren dokumentu berriari gehitu beharreko eduki aldatuak eta haren zehaztapenak eta proposamenak lantzeko hartu beharreko antolamendu-irizpide berriak.

- Planaren eduki, testu eta plano guztiak eguneratuko dira. Eginkizun horretan, erabilgarri dagoen informaziorik eguneratuena gehitu beharko da lurraldeari, demografiari, hirigintzari, alderdi sozioekonomikoei eta azpiegiturei buruz. Halaber, administrazio sektorialeiei eskatu zaizkie gauzatzen edo berraztertzen ari diren aurreikuspenak eta proiektuak eta udalei onartu dituzten edo izapidetzen ari diren plangintzak.
- Lurralde Plan Partzialaren lurraldea antolatzeke ereduari finkatu egiten da ingurune fisikoaren antolatzeke egitura orokorra, areagotu egiten baita landa-habitata finkatzeko babes bereziko lurzoruen lurralde-garrantzia, lehen lurralde-erreserba gisa kontzeptuatueta zeuden espazioetako asko babes bereziko lurzoru horietan sartu izanaren ondorioz.

Horren osagarri, ezabatu egin da lurralde-erreserben figura.

Gainera, ingurune fisikoaren antolamenduaren barruan, espezifikoki sortu da, gainjarritako antolamendu-figura berri gisa, nekazaritzako eta abeltzaintzako esparru estrategikoen kategoria.

Halaber, Lurralde Plan Partzialak definitutako “babes naturalistiko eta/edo basogintzako babes berezia duten lurzoruen” mugak egokitu egingo dira, Eremu Funtzionalean dauden Natura 2000 Sareko espazio guztiak eremu horietan integratuta gera daitezen.

Azkenik, ingurune fisikoaren antolamenduan beste lurzoru-figura berri bat ere gehituko da: hiri inguruko landa-lurzorua. Landa-habitata urbanizaziotik babesteko esparruaren ezaugarriak izango ditu, gutxienez Planaren horizontean.

- Mugikortasun-ereduaren eskema orokorrari dagokionez, Lurralde Plan Partzialean ekintza hauek gauzatuko dira:
 1. Errepideen gaian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adierazpenak kontuan harturik:

- 2. ingurabidearen etorkizuneko luzapenaren bide-hipotesia ezabatzea. Ezabatu egingo dira, halaber, A-1 autobidearen Andoain eta Lasarte arteko bikoiztea, N-121 errepidearen Irun eta Endarlatsa artekoa, eta N-634 errepidearen Usurbilgo eta Aginagako saihesbideak.
- Astigarragako Garraio Zentroa sartuko da.
- Aurreikusita dago hirugarren erreiak eraikitzea AP-8/AP-1 autobidean, Irungo Bentaren eta mugaren artean, eta etorkizuneko lotune berriak eraikitzea Lanbarrenen –Lezo-Gaintxurizketa korridorerako eta Pasaiaiko porturako sarbidea– eta Irun erdialdean.
- Irungo Hegoaldeko Ingurabidearen aurreikuspena, AP-8/AP-1 autobidearen lotune berriaren eta N-121 errepidearen artean.

2. Trenbideen gaian:

- Mantendu egingo da iberiar zabalerako egungo ADIF sarea, baita aldiriko eta salgaien sare gisa indartzeko aurreikusitako hobekuntzak ere.
- Prestazio Handiko Sare berria:
 - Zabalera mistoko edo hirugarren hariko soluzioa aurreikusten da muga eta Astigarraga artean, geltokiak Irunen eta Atotxan (Donostia) dituela. Etorkizuneko Frantziarekiko konexioa ere aurreikusten da.
 - Mantendu egingo da Astigarraga eta Gaintxurizketa artean aurreikusitako salgaietarako by-pass trenbidea.
 - Astigarragan aurreikusitako Trenak Aurreratzeko eta Aparkatzeko Postuari (PAET-TAAP) eta Astigarraga-Martutene-Donostia tarteko trenbide-plataformaren desplazamenduari dagokienez, administrazio sektorial eskudunak horri buruz landu dituen informazio-azterketak gehituko dira.
- ETS sarea:
 - Anoeta eta Añorga arteko konexio-begizta zentrala sartuko da, eta hiru geltoki berri eraikiko dira Morlans-Amaran, Erdialdea-Kontxan eta Benta Berri - Unibertsitateetan.

- Ezabatu egingo dira Aginagako eta Zubietako geltokiak.
- Bidaiarien sarerako aurreikusitako trazadura berria gehituko da Altza-Galtzaraborda tartean.
- Galtzarabordatik Errenteriako estazio zentralerako ETSren linearen ingurabidea sartzea.
- Mantendu egingo da Lezo-Gaintxurizketako intermodala eraikitzeko proiektua.

3. Portuaren gaian:

- Ez da aurreikusi Pasaiaiko Portuko kanpoaldeko dartsena eraikitzea Lurralde Plan Partzialaren indarraldian.
- Badiaren barruan portu-jarduera finkatu eta haztea sustatu da, haren hiri-ingurunearekiko eta ingurumen-bikaintasunarekiko bateragarritasun-baldintzetan.
- Bide- eta trenbide-konexioak berraztertzea, zerbitzu-maila hoberenak ziurtatzeko eta portuaren intermodalitatea bultzatzeko.
- Lezo-Gaintxurizketako plataforma intermodalarekiko bide- eta trenbide-konexio bat aurreikustea.

4. Aireportuaren gaian:

- Ezabatu egingo da aireportua handitzeko aukera.

5. Bizikleta eta oinezkoen bideen gaian:

- Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Planean aintzat hartzen diren baina Lurralde Plan Partzialean jaso ez diren ibilbideak sartzea.

Mugikortasun-eredu erreformatuan ezabatu egingo dira epe ertainari eta epe luzeari buruzko aipamenak, eta eredu bakarra jasoko da.

- Uraren ziklo integralari eta zerbitzu-azpiegiturei buruz:
 - Lurralde Plan Partzialaren eduki guztiak eguneratu egingo dira, berriki onartutako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeke Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoarekin bat etorrazteko.
 - Ezabatu egingo da Lurralde Plan Partzialean planteatutako Oiartzungo haranean goi-tentsioko linea lekualdatzeko proposamena.
- Lurralde Plan Partzialaren lurraldea antolatzeke ereduan hiri-ingurunearen antolamenduaren oinarritzko zonifikazioa erreformatuko da. Horretarako, ezabatu egingo da lurralde-erreserben figura, eta Zubieta-Aginagako, Igara-Troiako, Lasarte-Oriako goialdeetako, Goiburuko, Oiartzungo haraneko eta Olaberriko haraneko lurralde-erreserbei atxikitako esparruak landa-lurzorua finkatzeari atxikitako lurzoruen gehikuntzara eskualdatuko dira.

Halaber, ezabatu egingo dira kanpoaldeko dartsenari eta Olaberriko lurralde-erreserbari dagozkien izaera estrategikoko eremuak.
- Gainerako izaera estrategikoko eremuak mantendu egingo dira, dagozkien proposamen-eguneratzeak eginda, mugikortasuneko eta hiri-ingurunekeo eredu berriekin koordinatuta.
- Lurralde Antolamenduko Gidalerroak berraztertzeke prozesuan hartutako lurralde-politikako irizpideekin bat etorritz, lehentasuna emango baitzaio lehendik dauden hiri-ehunak dentsifikatzeari eta birgaitzeari hiri-hedapen berriaren estrategiaren aurretik, murriztu egingo dira Lurralde Plan Partzialean bizitegi-parkea kuantifikatzeko eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua dimentsionatzeko parametroak.
- Ekipamendu orokorreki buruz:
 - Berraztertu egingo da Santiago bidearen trazadura.
 - Ekipamendu orokor gisa sartuko dira Irungo Zubieta aldea, kirol-ekipamendu gisa, Txingudiko eskualde-ospitalea, ingurumena ezagutzeko Plaiaundiko zentroa, San Telmo Museoa eta Albaola Proiektua, Ondartxoko ontziolako kultura-ekipamendu gisa.

- Lurralde Plan Partzialaren alderdi arauemaileei buruz:
 - Lurralde Plan Partzialari eutsiko zaio, antolamendu-proposamenetan aldaketarik sartu behar izan gabe, ezta garapen arauemailean ere. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako plangintza-figuretara edota legeria sektorialaren ondoriozko plan berezietara joko da. Halaber, apropos eta behar adinakotzat jotzen da Lurralde Plan Partzialak plangintzak bateragarri egitearen gaiari ematen dion tratamendua. Izan ere, nahikoa izango litzateke, logikoki, dokumentuan sartuko diren aldaketen ondoriozko doikuntza berriak sartzea.

Lurralde Plan Partzialaren dokumentuan aldatu beharko diren gai nagusien erreferentzia horri, jakina, ezaugarri hauek dituen plan batek dakartzan behar bezala koordinatutako eduki eta zehaztapenen multzoaren garapen xehatuari datxezkion alderdi guztiak gehitu beharko zaizkio.

3.4.- LURRALDE- ETA HIRI-ERREFERENTZI OROKORRAK

Antolamendu-jarraibidetzat zerrendatutako berariazko irizpideak gehitzeaz gainera, jarraian adierazten diren lurralde- eta hirigintza-erreferentzia orokorrak planteatzen dira Lurralde Plan Partzialerako ereduak eta antolamendu-proposamenekin lotuta.

- Lurralde ikuspegitik, bere balore natural, ingurune eta paisaiengatik babes bereziaren objektu eta ingurune fisikoko baliabideen oinarri eta lehen sektoreko jardueren oinarritzko euskarriaren iraupena eta sendotzea lehentasunezko helburu sozialtzat ulertzen direnez, lurralde antolamenduaren honako jarraibideak ondorioztatzen dira:
 - a) Donostiako Eremu Funtzionalak dituen ezaugarri geografiko apartek interes handieneko lurralde-aktibo gisa zaindu eta bultzatu beharrekoak diren balio eta baliabide naturalak eskaintzen dituzte.
 - b) Donostiako Eremu Funtzionalaren topografia malkartsuak eragin erabakigarria du lurralde-antolamenduaren konfigurazioan. Hirigintza-okupaziorako lur egoki gutxi izateak nabarmen baldintzatzen du hirigintzaren eta azpiegituren garapenari buruzko erabakiak hartzea.
 - c) Lurzoruak lehen sektoreko jardueren oinarritzko euskarria osatzen du, bere iraupena eta sendotzea Lurralde Plan Partzialaren helburu estrategiko bezala konfiguratu behar dira, sozial, kultural, ekonomiko, paisaia babestu eta baserri ingurumena zaintzearen ikuspegitik. Horretarako hiri garapenaren aldeko eskaeren aurrean, baserri ingurunea bereziki babestuko dituzten neurriak finkatu behar dira. Lurzoruaren okupazio dentsifikatuaren eredia da, zalantzarik gabe, babes neurri nagusia.
 - d) Hirigintzaren eta azpiegituren garapena haranetan zehar eta hauen zeharkako korridoreetan zehar kontzentratzeko egungo eredia egokitzeak jotzen da funtsean, erabilgarri dauden espazio-baliabideen aprobetxamendu arrazionala optimizatzea ahalbidetzen baitu. Jakina, horretarako ezinbestekoa da gehiegizko dentsifikazioa kontrolatzea eta sistema hidrografikoaren dimentsionamendu zuzena zaintzea. Gainera, sistema hidrografikoa zuzenki mantendu behar da, bereziki ur-masen egoera ekologikoa eta egungo balioa.

- Donostiako Eremu Funtzionala 406.418 biztanleren bizileku eta lan-esparrutzat hartzearen ikuspegitik ondorio hauek ateratzen dira:
 - a) Donostiako Eremu Funtzionalaren hiriko espazioa okupatzeko egungo eredua egokia da, zeren bizigarritasun-baldintza onak eskaintzen baitizkie biztanleei, eraikin kostuak gutxiagotzea eta azpiegituren sarea mantentzea ahalbidetzen du, erabilgarri dauden espazio-baliabideak optimizatzea eragiten du eta, gainera, ingurunearen baldintza naturalak eta paisaiari dagozkionak erabiltzen eta gozatzen laguntzen dio hiriko biztanleriari.
 - b) Eremu Funtzionalan bizitegi-eremu hiritarretako batez besteko dentsitatea, 68 etxebizitza/ha, guztiz onargarritzat jo daiteke Lurralde ezaugarri topografikoak kontuan hartuta.
 - c) Eremu Funtzionalan hiri-asentamenduak banatzeko egungo eredua, biztanleria lurralde osoan orekatuta banatzea bereizgarri duena, guztiz aproposa da, biztanle-gune bakoitzaren berezitasunak eta hiri-ezaugarri nagusiak iraunaraztea bultzatzen baitu. Biztanle gehien dituzten eremuen banaketa deszentralizatuak oreka eta aniztasuna ematen dio konurbazio osoari eta naturaltasunez ebazten du hiri-bilbearen eta inguruko landa-ingurunearen arteko inbrikazioa.
 - d) Donostiako Eremu Funtzionalaren gune anitzeko egitura, halaber, bere hiri-antolakuntzaren aktiboa da. Berezko nortasuna duten hainbat hirigune izateak nabarmen aberasten du bizitegi moduko hirigintza-sistema, produkzio-eremuen kokapen dibertsifikatua errazten du eta biztanleak zuzenean eta berehala hurbiltzen ditu oinarrizko zuzkidura-ekipamenduen zerbitzuetara.
 - e) Eremu Funtzionalako eskualdeetan biztanleriaren eta enpleguaren banaketa erlatiboa aski orekatuta dago. Izan ere, eskualde baten barruan lana duen biztanleriaren eta lanpostu-kopuruaren artean dagoen desorekak ez du inoiz %20 gainditzen.

Eskualde bakoitzaren barruan bigarren eta hirugarren sektoreko enpleguen arteko banaketa, aldiz, ez dago hain orekatuta. Eremu Funtzionalako batez bestekoaren aldean, Donostialdeko erdiguneak hirugarren sektoreko enplegua kontzentratzen du, Bidasoa Beherea orekatuta dago, eta Oarsoaldea, Urumea eta Oria Behereko eskualdeek defizit erlatiboa dute hirugarren sektorean.

Enpleguaren eta biztanleriaren arteko oreka hau lortu nahi den helburua da, zeren oso lagungarria baita lantokiaren eta bizilekuaren arteko eguneroko joan-etorriak orokorrean murrizteko.

f) Gaur egun, udal bakoitzaren hirigintza-estrategia partikularrak batuz konfiguratutako hirigintza-kudeaketa orokorraren emaitza gisa, hirigintza-hazkundeek, bizitegi-arlokoek batik bat, udalerri bakoitzari dagozkion pisu demografikoak errepikatzen dituzte, salbuespenak salbuespen. Gauzak horrela, gaur egun Eredu Funtzionala ez da hazten bere Lurralde zati desberdinen harrera-ahalmenaren arabera, bertako udalerri bakoitzaren tamaina demografikoaren proportzioan baizik.

Komenigarria izango da, hala ere, Lurralde Plan Partzialaren etorkizuneko hazkunde joeretan zuzenketa osagarri bat garapen berrien haztatu faktoreak sartuz libre dagoen espazioaren arabera eta udalerri bakoitzaren onarpen ahalmenaren edo Eremu Funtzionalako espazio esparru berezien arabera.

g) Nahiz eta azkeneko urteetan aurrerapen nabarmenak egon, Eremu funtzionalak operadore desberdinen funtzionamendu koordinatua arrazionalizatu, bereziki autobusen bitarteko garraioa trenbideekin eta bi trenbide operadoreen arteko koordinazio mailan, aparkaleku disuasioen existentzia baimenduz eta ibilgailu pribatuen erabilera minimizatuko duen garraio publikoko sistema integratua behar du.

- Europako garraio eta komunikabideen sarea bertatik igarotzen delako Eremu Funtzionala leku estrategikotzat hartzeko ikuspegiari dagokionez, honako ondorio hauek atera daitezke.

a) ADIFeko trenbide-sarea eta A-8/A-1eko ekialdeko zatiko Donostiako eskualde-egiturako garraio eta komunikabideen oinarrizko sareak funtzio bikoitza betetzen du: kanpoko zeharkaldiko trafikoak xurgatzen ditu eta, aldi berean, barneko asaldutrafikoak ebazten ditu, bai merkantzia eta bai pertsonen mugimendu mailan. Trafikoen gainjartze hau errepide-sare orokorrean zein trenbide-sarean gertatzen da eta, bi kasuetan, eskari funtzional jakin baten euskarri gisa optimizatzea eragozten duten elkarrekiko interferentziak sortzen ditu. Bidesari-politikak, trafikoen erregulazioa, loturen edo geltokien kadentzia, eraginak zuzentzeko neurriak hartzea, segurtasuna areagotzea etab. bezalako alderdi kontraesankorrak nekez konpondu ahal izango dira Eremu Funtzionalako zirkulazio-euskarriaren zenbait zatitan aldi berean eskakizun heterogeneoak eta antagonikoak dauden bitartean barneko asaldutrafikoen eta zeharkaldikoen artean.

- b) Errepideko garraioaren sektorea ekonomia-jarduera bereziki garrantzitsua da Donostiako Eremu Funtzionalean. Kokapen estrategikoak eskualdeari ematen dion abantaila erlatiboa Europako komunikabide sarearen testuinguruan, aukeren eszenatoki bat proiektatzen du. Aukera hauek aprobetxatu egin behar dira jarduera logistikoen garapenera zuzendutako espazio-erabilgarritasuna optimizatuz.
 - c) Eremu Funtzionalean gaur egun aztertzen diren proiektu estrategiko nagusiak, guzti horiek orokorki garraio jarduerarekin erlazionaturik, Pasaiaiko Badiaren berantolatzea, Euskadiko Trenbide-Sare berria, Tren eta Autobusen geltoki berriak, Lezo-Gaintxurisketako logistika plataforma, eta Pasaiaiko Badiako eta Irungo Erdiguneko hiri birmoldaketan lanekin. Proiektu hauek berariazko arreta eskatzen dute Lurralde Plan Partzialaren lanak gauzatzerakoan. Lurralde Plan Partzialean gauzatu beharko da hautabide nagusien eskuartze proiektio bat, bai espaziozkoa bai denborazkoa, era guztietara lurralde antolaketaren estrategia bat aski estrukturatua, eta egun ezezagunak zaizkigun arazoaren aurrean behar den malgutasun irekiaren ondoan, aurreikuspen funtzionalak, ingurune ereduak eta baldintzapen azpigituak eskainiz. Hauek utziko dute bermatzen eginkizun hauen txertatze egokia Lurralde Plan Partzialaren lurralde antolamenduaren eremuan ezarritako helburu orokorren betetzearen testuinguruan.
 - d) Donostiako Eremu Funtzionalera kanpotik sartzeko errepide sarearen funtzionamendu orekatu batentzat, etorkizunean, egundo peaje sistema ez da murriztuko A-8/A-1 autobidera bakarrik eta tarifen erregimen homogeneago bat pixkanaka ezartzea eskatuko da.
 - e) Pasaiaiko merkataritza-portuak zeregin garrantzitsua izan behar du salgaien gainerako garraio-moduak egituratzean. Hala, zerbitzu intermodalak ezarri behar ditu, eragile logistiko globalak egotearen ondoriozko ahalmenak ustiatzeko aukera emango dutenak (horiek, egun, errepideetan eta horiek trenbidearekiko duten konektagarritasunean daude oinarrituta).
- Azkenik, hainbat ondorio planteatzen dira Donostiako Eremu Funtzionalako hirugarren sektoreko zerbitzuen erakargune izatetik eta ordenamenduaren honako jarraibideak ondorioztatzen dira:
 - a) Donostiak kanpoalderantz proiektatzen duen hirugarren sektoreko eta zuzkiduren arloko eskaintzak ez dauka zertan oinarriturik hiriaren erdigunean bakarrik; baizik geroz eta gehiagotan eskualdeko ingurune osoan sortu ahal izango da. Hirugarrengo sektorearen dibertsifikatzeko gaitasun hau indartzea, lurralde antolaketaren helburu bezala planteatzen da.

- b) Donostiak Gipuzkoako hiriburu gisa eta EAEko hirien sistemaren funtsezko osagai gisa duen hiri-zentraltasunaren berezko hirugarren sektoreko funtzioez gain, Eremu Funtzionalak proiektzio-potentzial handia azaltzen du Baiona-Donostia mugaz gaindiko eurohiriaren proiektuari lotutako hirugarren sektoreko jarduerak hartu eta garatzeko etorkizuneko esparru gisa.
- c) Eremu Funtzionalako etorkizuneko eskaintza konfiguratuko duten hirugarren sektoreko aktibo gisa, ikusi behar dira eskualde bakoitzak Donostiako hirugarren sektoreko ekipamendu-sorta zabalarari era dibertsifikatu eta osagarrian proiektu diezazkiokeen potentzialtasun espezifikoak.

3.5.- LURRALDE PLAN PARTZIALA IDAZTEKO ANTOLAMENDU IRIZPIDE OROKORRAK

Izaera orokorreko osagarri gisa Lurralde Plan Partzialeko 3.3. epigrafean gehitzeko egungo diagnostikoaren laburpen gisa zenbatutako irizpide espezifikoentzako eta, Donostialdea-Bidasoa Behereako Eremu Funtzionalerako 3.4. epigrafean zenbatutako lurralde-erreferentzi orokorren osagarri gisa, antolamendu irizpide nagusi orokorrak azaltzen dira hurrengo puntuetan, hauekin oraingo Lurralde Plan Partzialaren aldaketa dokumentua lantzen delarik:

- Lurralde Plan Partzialaren dokumentua idazteko irizpideak finkatzeko abiapuntu bezala beharrezkotzat jotzen da, zalantzarik gabe, Euskal Autonomiko Lurralde Antolamenduko (LOT) Lurralde Plan Partzialen, maiatzaren 31ko 4/1990 legearen 12.artikuluan aurreikusitako zehaztapenen multzoa betetzea.
- Lurralde Plan Partzialaren funtsezko edukiak Eremu Funtzionalerako lurralde esparruaren baterako testuinguruan integralki sistematizatuak, gai sektorialen antolakuntzako proposamen nagusien laburpenagatik konfiguratuak geratuko direnak, Lurralde Ereduan gauzatuko dira.

Lurralde Eredua formulatuko da aintzakotzat hartuz Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiaren markoan adierazitako garapen iraunkorraren eta lurralde orekaren irizpideak, III Ingurumen Programa Markuaren arabera.

Lurralde Ereduek Eremu Funtzionalerako azpiegitura eta lurralde antolamenduaren eskema edo oinarritzko euskarria ikustarazi beharko du. Lurralde Ereduko eskala lokaleko berariazko galdeketei buruzko aukera- hau- tabideak bere gain izendatu ahal izateko behar adineko malgutasuna edukiko da, beti ere lurralde antolamendu orokorraren funtsezko parametroak hipotekatzen eta nahasten ez diren bitartean.

- Dena dela, galdera determinatzaileak Lurralde Plan Partzialaren Antolamendu Orokorraren barruan aztertuko dira, hauek Lurralde Plan Partzialaren markoan lehentasunezko ikasketaren aldagaiak bezala kontuan hartu beharko dira Eremu Funtzionalaren antolamendu espazialaren ondorengo konfigurazioan duten lurralde eraginagatik:
 - Ingurumen fisikoko balore naturalak babesteko eta indartzeko aztertutako espazio unitate handien zehaztapena eta lehen sektorea sendotzeko oinarritzko euskarri gisa, nekazal ingurunearen bultzatzea.

- Etorkizuneko garraio eta komunibide sarearen konfigurazioa bidean eta/edo etorkizun laburrerako aurreikusitako eskuartze handien eta proiektu multzoen osaketarekin.
 - Pasaiko Badia eta Gaintxurizketako Korridorea Pasaian, Lezo, Errenteria eta Donostiako eta Irungo Tren Erdi Guneko esparruen berrantolaketa orokorraren osoko plangintzarako aztertutako lurralde antolamenduaren proposamenak.
 - Geroko hiri garapebaren aurreikuspen nagusiak, bai prospekziarako beste aukera potentzialekoak, bai hiri planeaketan iadanik aztertutakoak.
 - Lurralde Plan Partzialetik lurralde plangintzaren eskala orokorreko berariazko estrategiak, zein esparruen gain planteatzen diren.
- Lurralde Plan Partzialak hirigintza eta azpiegiturretan epe laburrera eskuhartzeko politiken ondorio diren eskakizun koiunturalak gaindituko dituen denbora-horizonterako proiektatuko ditu bere proposamenak. Lurralde Plan Partzialarentzat 16 urteko horizonte prospektiboa ezarri da zeren planteatzen diren proposamen eta zehaztapenak erdi-luzeko epera antolamendu eszenategiak aztertu beharko dituzte, hauek berehalako lurralde antolamenduaren berariazko koiuntura gaindi dezakete.
 - Otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko Ingurugiroa Babes Orokorreko legearen arabera, Lurralde Plan Partzialak Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Baterako prozeduren menpean geratzen da, Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren bideratze eta sustapen prozesua garatu beharko da 183/2003 Dekretuak dioenarekin adostasunean. Honen arabera erregulatzen da Ingurune Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren prozedura, baita ere zenbait plan eta egitarauak ingurugiroan dituzten ondorioen ebaluaketaz dioena 9/ 2006 lege estatalak, 2008-02-19 datan, IIBE Azterketa ondoren lantzeko “erreferentzia dokumentua” deituriko igorpena, Plangintza, Ebaluaketa, Ingurune Kontrolaren Zuzendaritzari eskatu zitzaion bezala.

Beranduago, 2008ko irailaren 24ko Ebazpenaren bitartez, Ingurumeneko Kontselariordeak “Lurralde Plan Partzialeko Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Behereako) Eremu Funtzionaleko Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Osoarentzako Erreferentzia Dokumentua” idatzi zuen.

- Lurralde Plan Partzialean aztertu beharko dira Donostiako Eremu Funtzionalak dituen lurralde, azpiegitura eta funtzional loturak inguruko Eremu geografikoekin. Baiona-Donostia (Eurohiria) konurbani-zaketaren mugaz bestaldeko proiektuaren funtsa, EAEko hiri sistemaren osaketa gunea eta Gipuzkoako hiri administratiboaren egoitza, baita ere, Nafarroako Bortziriak-Cinco Villas eskualdearentzat Irun-Hondarribik, gune moduan, betetzen duen hirugarren zerbitzuen hiri-burutza.

Zentzu honetan, Lurralde Plan Partzialean aztertu beharko da Eremu Funtzionalak proiektzio sendoa eskaintzen duela Baiona-Donostia, eurohiriaren proiektuari lotuta hitugarren mailako jardueren eszenatoki bezala, gainera hirugarren mailako funtzioak berezkoak zaizkio Donostiari Gipuzkoako hiriburu bezala erdigune izateagatik.

- Era berean, Lurralde Plan Partziala lantzerakoan espazio-azpibanaketako bitarteko eskalaren kontu-hartzea aztertu beharko da. Izan ere, eskala honek udalerrien mugaketak izan ohi diren trabak gaindituko lituzke, Lurralde konfigurazio geografikora egokitu zerbitzuak erkidetuta kudeatzeko eta ekonomi-garapenerako ekimen berriak eskualde-mailan sustatzeko joera berriak islatuko lituzkete aldi berean.

Azpibanaketa hau ez da tresna instrumental huts gisa konfiguratzeko; Aitzitik, eskualde-egituraren esparru orokorraren barruan beren lurralde fisikoaren karakterizazioaren ikuspegitik zein problematika sozioek-onomikoaren kudeaketa eta azpiegitura eta zerbitzuen antolaketa kontuan izanik tokiko nortasuna eta berezkitasuna duten hainbat eremu edo eskualde definitzea ahalbidetzen duten faktore geografiko, politiko eta sozioekonomiko jakin batzuen erantzuna izan beharko du. Zentzu honetan, kontuan hartu beharko dira ondoko faktoreak:

- Lurralde funtsa oinarri koerente bezala antolaketa funtzional berrirako, udalen mugen gainditze administratibo progresiboa ahalbidetuko duena.
- Eskualde eskala marko egoki bezala hiri eta iraunkor mugikortasun handiagoatzarengan esku-hartze eraginkor baterako.
- Udalez gaindiko esparruaren esku-hartze eskala egoki bezala zerbitzuen erkidegoentzat, garapen ekonomikoaren agentzientzat eta babestutako etxebizitzaren geroko kudeaketarako.

- Lurralde Plan Partzialaren bideratze prozesua adostu beharko zaiei kontsulta eta entzute bideratzei, administrazio publikoei eta egungo legedian aurreikusitako informazio publikoaren denboraldiei, baita ere hedatze publikoa-aren ekimenei, hiritar parte hartzeari eta estamentu sozial eta sektorialekin iritzien kontrastei. Estamentu hauek administrazio eragiletik bidezkozat ulertzeko une bakoitzean komeni diren dokumentu dibulgetzaileak erabiliko dira.

3.6.- LURRALDE PLAN PARTZIALAREN HELBURU OROKORRAK

Hona Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialeko dokumentu hau idaztean gailendu diren jarraibide nagusiak eta Plana sustatu duten administrazioek planteatutako antolamendu orokorreko helburuak:

1. Lurralde natura-baliabideak eta paisaia-balioak zaintzea eta indartzea, biztanleek erabili eta ingurumenaz gozatzeko ondasun gisa eta eskualde-egiturako hirugarren sektoreko aktiboak indartzeko eta kanpoaldean proiektatzeko faktore erantsi gisa.
2. Lehen sektorearen jardueren garañerako oinarritzko euskarri gisa nekazal ingurunearen kontu hartzea, bere sendotzea eta irautea interes orokorraren balioztat hartzen da, ez bakarrik sozial, kultural, eta ekonomikoki baita ere lurralde babesteko eta mantenimenduaren ikuspegitik. Zentzu honetan, ez bakarrik urbanizatu gabeko lurzoruen gehiegizko okupazioen eskaerei babes neurriak jarri, baizik eta landa eta lehen sektoreko ingurunearen (Landa parkeak eta abeltzaintza eremu estrategikoak) bultzatzeko, Lurralde Antolamenduko Nekazaritza eta Baso Arloan adierazitakoaren arabera, antolamendurako irudi berriak sortzea proposatzen da.
3. Egungo lurralde-antolamenduko eredua azpiegitura berriak espazioan antolatzeko eta etorkizuneko hirigintza-hazkundera hartzeko abiapuntu egoki gisa onartu eta finkatzea, hiri-garapenaren korridoreak Lurralde egituraren konfigurazio orokorrera egokitzea bereizgarritzat duen eredua baita.

Horrenbestez, ingurune fisikoaren konfiguraziora egokitzeko oinarritzko eskema bat hartzea hirigintza-garapen berrien etorkizuneko irismen espaziala erreferentzialki mugatzeko baliabide egoki gisa.

4. Lurralde Plan Partzialaren Antolamendu Ereduan txertatu beharko dira logikoki finkatuta bezala eman diren azpiegituren jarduerak (2. ingurubiea, Urumeako autobia, Euskotrenaren bide banatzea eta estazio berriak sarean) azkenaldian eraiki direnak eta aldi berean, bidean edo proiektutzat dauden jarduera berriak (Euskadiko Trenbide-Sare berria).

5. Lurralde Plan Partzialaren Antolaketa Ereduari txertatu beharko zaizko hiri birmoldaketaren prozesua osotasunean erabakitzeko proposamenak eta oraindik Eremu Funtzionalen zintzilik dauden puntu nabarmen eta estrategikoak, Pasaiko Badiaren hiri birmoldaketa eta Pasaiko Portuko esparru gunearen berrantolaketa, Lezo-Gaintxurizketako korridorearen hiri garapena, eta Irungo trenbide eta erdialdeko gunearen hiri berrantolaketa, eta Zubieta eta Txingudiko eremuen tratamendu osagarria esanguratsuenen artean, esandako operazioen garapenari baldintzatutako eszenatoki aukera nagusien enuntziatu eta balorazioetara etorriz.
6. Lurralde Plan Partzialean kontuan hartzeko Antolamendu Ereduak, Eremu Funtzionalaren erakundean oinarritzen denak, azpiegituraeuskarrien proposamenez gain, euskualde osoko Lurraldegan aureikusitako hiri garapen berrien lekutze eta dimentsionatzeko jarraibide batzuk eskaini behar ditu. Hauek nahitaez garraio sare publikoarengatik baliagarrituak egon behar dira.

Lurralde Plan Partziala 16 urteko denboraldi horizontearekin epe luzerako egituratzen da, koiuntura demografiko aldakorren eta ziklo ekonomiko ereduaren egokitzeko gaitasuna ziurtatuz, lekutzeko eta dimentsionatzeko jarraibideak era malgu eta irekian konfiguratzea komeni da

Ondorengo udal planeamenduan beraz, Lurralde Plan Partzialean aukera erlatiboki irekiak, hiria handitzeko guneen lekutzeko eta dimentsionatzeko alternatibentzat.

7. Errepide-sarea. Igarotze-trafikoak eta barneko asaldutrafikoak pixkanaka bereiztea ahal den heinean, pisu handiko ibilgailuen trafikoaren garraio saren handietan sartze azkarra baimenduz, horrela egungo oinarritzko sarea pisu gutxiko ibilgailuentzako utziz eta egungo oinarritzko sare hau hiri banaketa sare primarioa edo oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide bihurtuz.

Epe luzerako denbora-horizonteko eredu bat hartzea Donostiako Eremu Funtzionalen garraio eta komunikabideen sare orokorra pixkanaka eta progresiboki etorkizunean konfiguratzeko. Epe labur eta ertainean azpiegitura-arloan esku hartzeko programak eredu horren ondorio diren funtzionaltasun eta lurralde-mailako estrategietara moldatzea.

Epe luzerako tarifa homogeneouskun kanpo zeharbideen errepide sare nagusi multzoen luzapena, bere funtzionamendu orekatua hobetzea uzten duelarik.

Eremu Funtzionaleko udalerrien arteko garraiobide publiko integrala bultzatzea. Horretan, garraiobide guztien arteko intermodalitateari lehentasuna emango zaio.

8. Trenbide-sarea. Euskadiko Trenbide-sare berria eta operazionalki Renfe eta Euskotrenaren sarearekin txertatu. Konfigurazio eraginanitzeko Trenbide sarearen kanpoko inpaktuak eta kontsumoak gutxiagotuko ditu; aldiriko ibilbide luzeko eta ertaineko bidaia-ien zirkulazio eta salgaiena kalitate biakaina eskainiko du; zirkulazio sarrera eta erakarpenak, aldaketa modaleko eta jarduera logistikoetako guneak lotuko ditu; itxasoko eta errepide bidezko garraioarekin aldaketa modala erraztu eta indartuko du, egoki zabaldu eta diseinatutako terminalen sistema anitzaren bidez eta Lurralde Plan Partzialaren alorrean egituraketa funtzionala eta Lurralde egituratzea positiboki sustatuko ditu.
9. Portu-azpiegitura. Pasaiaiko portuaren konexioa bide- eta trenbide-sareekin, zerbitzu intermodalak ezarritako trenbide-trafikoaren, errepidekoaren eta itsasokoaren artean. Zerbitzu horiek ustiatu egin behar dituzte Eremu Funtzionalaren lurralde-kokalekuaren ahalmen guztiak, enpresa-ezarpenarenak eta azpiegitura-zuzkidurenak.
10. Europako garraio eta komunikabide sarearen testuinguruan Eremu Funtzionaleko pribilejiatutako kokalekuaren ondorioz egiaztatutako aukera estrategikoen aurrean, Donostiako Eremu Funtzionalaren barruan garraio sektorearen funtzionamendua optimizatzeko, zerbitzu eta intermodalitate baliabideen lehentasunezko aurreikuspena.

Lezoko plataforma logistikoa Batasuneko garraio-ardatz nagusietako baten barruan sartzeko delako kontuan hartzea; hain zuzen, Korridore Atlantikotzat (edo 4. korridoretzat) ezaguna den ardatzean. Korridoreak (EBko guztiak bezala) garraiobide guztiak biltzen ditu: bideak, trenbideak, itsas bideak eta aire-bideak. Europar Batasunaren helburua da (intermodalitatea hobetzeko eta, horri esker, garraioaren kostua optimizatzeko) korridore horietan gune logistiko estrategikoak txertatzea, Lezoko plataforma intermodal eta logistikoarekin gertatzen den bezalaxe –berori Estatu-mailan dago jasota, bai Garraio Azpiegituren Plan Estrategikoan (GAPE), bai Garraio eta Etxebizitza Azpiegituren Planean (GEAP)–.

11. Eremu Funtzional osorako garraio publikoko sistema bateratua eratzea. Egungo operadore guztiak sare komun batean bateratzea. Trukatzaileak, geltoki intermodalak eta aparkaleku gomendatuak konfiguratzeko sarearen puntu estrategikoetan.

12. Eremu Funtzionalak “zerbitzu-eskualde” gisako kanpo-proiektzioan eskaintzen dituen alternatiba desberdinak indartu eta baloratzeko estrategia. Eskala orokorreko hirugarren sektoreko eta zuzkidurako ekipamenduak Donostiako eskualde-egituran zehar deskontzentratzea proposatzen da, sarean banatuz lurralde osoan (adibidez, Ficoba, Txilidaleku, Albaola Proiektua eta abar).
13. Donostiako Eremu Funtzionalako ekonomia-jarduera berriak eta hirugarren sektorekoak Baiona-Donostian Eurohiriaren Proiektuaren esparruan integratzeko estrategia, espazio, azpiegitura eta zuzkiduren arloan osagarritasun-aukera nabariak eskaintzen dituen eskala handiagoko lurralde-antolamenduko esparrua baita.
14. Donostiako eskualde-egiturako espazioa okupatzeko egungo eredua Lurralde Plan Partzialean baieztatzea, eredu horrek hiriak haranetan eta zeharkako korridoreetan kontzentratzea eta kota garaiagoetan dagoen haranen tarteko lurraldea zaintzea du bereizgarritzat.

Espazio-antolaketa honi esker hirigintza-garapen intentsiborako lurrik egokienak aprobezka daitezke topografia malkartsuagoko eremuetan eraginik izan gabe eta bat dator Euskal Herriko Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Lege berrian kontuan hartutako garapen iraunkorraren jarraibideekin eta lurzoru baliabideen kontsumo azterketaren optimizazioarekin.

Irizpide orokor hau logikoki gehiegizko eraikuntza-dentsifikazioko eremuak antolatzea saihesteko betebeharrarekin eta ibai-ibarren funtzionamendu egokirako eta ingurugiroa behar bezala zaintzeko behar adina espazio erreserbak bermatzeko premiarekin bateratu behar da.

15. 2/2006 legearen postulatuarekin sintonian, gutxieneko estandarren finkatzean erabakitako irizpideak Lurralde Plan Partzialera aldatuko dira, dentsitate gutxiko tipologia duten garapen berrien aurreikuspenak Lurralde Plan Partzialaren Antolamendu Eredutik gutxituz.
16. Eremu Funtzionalan berezko hiri-nortasuna duten hainbat biztanle-gune izatean oinarritutako egungo hirigintza-eredua finkatu eta indartzea. Egungo gune anitzeko egiturari eustea, konurbazio osoaren etorkizuneko antolakuntza bermatzeko oinarria baita, eremu funtzionalaren hazkunde globala eskualde bakoitzaren proportziozko hedapenaren bitartez ebatziz, bere hiriguneen hirigintza-egituratik abiatuta.

17. Gaur egun Eremu Funtzionaleko azpieskualde bakoitzean biztanleriaren eta enpleguaren artean dagoen oreka-egoera sentibera mantendu eta optimizatzea. Oarsoaldea, Urumea eta Oria Beherea azpieskualdeetan hirugarren sektorea indartzeko neurriak sartzea, Eremu Funtzionaleko batez bestekoaren aldean duten defizit erlatiboa murrizteko. Subarea bakoitzaren barruan erabileren eta jardueren aniztasunak osatzen du lehen urratsa biztanleriaren eguneroko derrigorrezko joan-etorrietarako nibela jaisteko, biztanleriaren guneetako autosufizientzia laguntzeko eta eskualde bereiztuetan erabilerak biltzea eragiten duen motorizatuen joan-etorrien beharrezko handitzea gutxiagotzeko.
18. Laburbilduta, Eremu Funtzionaleko antolamenduaren helburu gisa “deszentralizazio kontzentratua” edo “sare moduko gune anitzeko hiria” izenda daitekeen hiri-eredua erabakitzen da, hazkundeak eskualde-zentraltasun handieneko guneen inguruan gehiegi kontzentratu izanaren ondorioz “zentralizazio globalizatuaren” eredu baterantz litekeen noraezean abiatzeko alternatiba gisa.